

54



LAN-KOADERNOAK  
CUADERNOS DE TRABAJO  
WORKING PAPERS

# Genero-ekitatea eta partaidetza, autonomia erkidegoen lankidetzetan

María Viadero Acha  
Jokin Alberdi Bidaguren



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACION INTERNACIONAL  
NAZKARTERKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA





# Genero-ekitatea eta partaidetza, autonomia erkidegoen lankidetzetan

María Viadero Acha  
Jokin Alberdi Bidaguren

**María Viadero Acha**, Mugarik Gabeko genero gaietarako arduraduna da, eta generoaren, feminismoaren eta lankidetzaren esparruko ikertzailea da.

**Jokin Alberdi Bidaguren** UPV/EHUko irakasle agregatua da, eta ikertzailea, erakunde hauetan: HEGOA, Gernika Gogoratuz eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Afrikar Ikerketen Taldea (GEA).

Nazioarteko lankidetzaren eta solidaritatearen arloetako militanteak dira biak.

Argitalpen hau Eusko Jaurlaritzak 2008 GLSF proiektuetarako deialdian onartutako «Euskal lankidetzaren erakunde esparru berria: genero-ekitatearen eta tokiko partaidetzaren aldeko lana indartzeko aukera bat» proiektuaren emaitza da.

Honako hauek osatu dute ikerketa taldea: Jokin Alberdi, Gloria Guzmán, Yolanda Jubeto, Luis Guridi, Mertxe Larrañaga, María López, Iván Molina eta Unai Villalba.



## HEGOA

[www.hegoa.ehu.es](http://www.hegoa.ehu.es)

UPV/EHU

Zubiria Etxea

Lehendakari Agirre etorbidea, 81 • 48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91 • Faxe: 94 601 70 40

[hegoa@ehu.es](mailto:hegoa@ehu.es)

UPV/EHU

Carlos Santamaría

Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 01 74 64 • Faxe: 94 601 70 40

[hegoa@ehu.es](mailto:hegoa@ehu.es)

UPV/EHU

Arabako Campus-eko Liburutegia

138 kutxatila. • Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. • Faxe: 945 01 42 87

[hegoa@ehu.es](mailto:hegoa@ehu.es)

Partaidetza eta genero-ekitatea,

autonomia erkidegoen lankidetzetan

María Viadero Acha eta Jokin Alberdi Bidaguren

Hegoaren Lan Koadernoak

54. zenbakia

2011ko maiatza

L.G.: Bi-1473-91 • ISSN: 1130-9962

Argitalpena: Lankopi, S.A.

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Testuen orrazketa: Silvia Piris



**Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Generikoa Espainia**

Dokumentu hau Creative Commons-en lizentziarekin dago. Aske zara lan hau kopiatzeko, banatzeko eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak aitortu behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza xedetarako erabili. Ezin duzu lan hau bestelakotu, eraldatu edo lan eratorririk sortu hartatik abiatuta.

Baimen osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/2.5/es/>

# Aurkibidea

## Genero-ekitatea eta partaidetza, autonomia erkidegoen lankidetzetan

Laburpena	5
Siglen eta laburduren glosategia	7
1. Lankidetzaren deszentralizatuak eta autonomikoak, Tokiko Giza Garapenerantz	9
1.1. Lankidetzaren deszentralizatuak, lankidetzaren zentralizatuaren alternatiba gisa	9
1.2. Lankidetzaren deszentralizatuak, eta pobrezia-aren kontrako borroka-ri eta laguntza-aren eraginkortasunari buruzko adostasun handiak	10
1.3. Autonomia erkidegoen lankidetzak	11
1.3.1. Autonomia erkidegoen lankidetzaren sorrera, bilakaera eta gaur egungo egoera	11
1.3.2. Espainiako autonomia erkidegoen lankidetzaren aukerak eta mugak	13
1.3.3. Euskal Autonomia Erkidegoaren lankidetzari buruzko zenbait ohar	15
2. Partaidetza eta genero-ekitatea, Tokiko Giza Garapeneraren osagai gisa	17
2.1. Tokiko Giza Garapena	17
2.2. Partaidetza demokratikoa eta ahalduntzea, TGGaren funtsezko osagaiak	18
2.3. Genero ikuspegia, giza eskubideak eta giza garapena gauzatzeko funtsezko osagai gisa	24
3. Autonomia erkidegoen lankidetzaren politika-aren analisia, partaidetzaren eta genero-ekitatearen ikuspegitik	31
3.1. TGGa eta partaidetza, hamazazpi erkidegoen lankidetzaren politika-etan	31
3.2. Partaidetza, Euskal Autonomia Erkidegoaren lankidetzaren: hitzetatik ekintzetara	35
3.3. Genero-ekitatea, hamazazpi erkidegoen lankidetzaren politika-etan	37
3.4. Genero ikuspegia, euskal lankidetzaren	41
4. Ondorioak, eta partaidetza eta GG ikuspegia erkidegoen lankidetzetan txertatzen jarraitzeko iradokizunak	45
4.1. Partaidetza eta generoa, autonomia erkidegoen legeetan eta plan zuzentzaileetan	45
4.2. Iradokizun orokorrak	47
Bibliografia	51



# Laburpena

Lankidetzaren deszentralizatuak oro har -eta autonomia erkidegoenak bereziki- potentzial handi bat dute: komunitateen ahalduntzea -emakume taldeena batik bat-, eta komunitate horiek beren etorkizunari buruzko erabakiak hartzen parte hartzea.

Lan honetan, autonomia erkidegoen lankidetzaren giza garapena eraginkortasunez eta benetan txertatzeko giltzarri eta elementu batzuk aztertu nahi ditugu, goian aipatutako bi alderdi horiei dagokienez zehazki; hau da, pertsonen ahalduntzeari eta erabakiak hartzeko partaidetza aktiboari, eta autonomia erkidegoen garapenerako lankidetzaren politikan genero ikuspegia txertatzeari dagokienez.

Lankidetzaren deszentralizatu mota horren berezitasunak oinarri hartuta, eta, bi aldeko eta alde anitzeko agentziek lankidetzaren egiten duten lanetik bereizita, autonomia erkidegoen lankidetzaren gaur egungo esparru juridiko-instituzionalaren bereizgarri nagusiak eta abian jarritako ekimen nagusiak aipatuko dira azterlan honetan, betiere, partaidetza eta genero-ekitateari dagokienez. Baina, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoaren lankidetzaren jardungo dugu. Lanaren azken zatian, bestalde, autonomia erkidegoetan giza garapenerako lankidetzaren politikan partaidetza eta genero ikuspegiak txertatzeko iradokizun batzuk bilduko dira.





# Siglen eta laburduren glosategia

AEak	Autonomia Erkidegoak.
AGM	Atzerri Gaietako Ministerioa.
BRIC	Brasil, Errusia, India eta Txina.
CEDAW	Convention on the Elimination of all Forms of Discrimination against Women. (Emakumeen Aurkako Diskriminazio Guztiak Ezabatzeari Buruzko Konbentzioa)
DAWN	Hegoaldeko eta Iparraldeko emakume eta ikertzaile taldeak.
EAO	Estatuko Administrazio Orokorra.
EB	Europar Batasuna.
ECDPM	European Centre for Development Policy Management. (Garapen Politiken Kudeaketarako Europako Zentroa)
EESK	Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak.
EG	Emakumeak Garapenean (ikuspegia).
EGGEK	Espainiako Garapenerako GKEen Koordinakundea.
EJ	Eusko Jaurlaritza.
ELGA	Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.
GBGI	Generoari Buruzko Garapenaren Indizea.
GEZ	Gobernu Ez-zentralak.
GG	Generoa Garapenean (ikuspegia).
GGI	Giza Garapenaren Indizea.
GGKE	Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundea.
GLB	Garapenerako Laguntza Batzordea (ELGArena).
GLO	Garapenerako Laguntza Ofiziala.
GNBP	Garapenerako Nazio Batuen Programa.
GSI	Generoaren Sustapen Indizea.
KAE	Konstituzio Auzitegiaren Epaia.
MB	Munduko Bankua.
MGH	Milurtekoko Garapen Helburuak.
NB	Nazio Batuak.
NDF	Nazioarteko Diru Funtza.
PSRP	Poverty Reduction Strategy Paper. (Pobreziaren Kontrako Borroka Estrategia)
PZ	Plan Zuzentzailea.
SWAp	Sector Wide Approach (ikuspegi sektoriala).
TGG	Tokiko Giza Garapena.
UNIFEM	United Nations Development Fund for Women. (Emakumearentzako Nazio Batuen Garapenerako Funtza)



# 1. Lankidetza deszentralizatuak eta autonomikoak, Tokiko Giza Garapenerantz

## 1.1. Lankidetza deszentralizatuak, lankidetza zentralizatuaren alternatiba gisa

Lankidetza deszentralizatua deritzo, oro har, estatuaz azpiko mailetakoa administrazioek edo gobernu ez-zentralek garatzen duten lankidetzari<sup>1</sup>. Egile batzuek Estatuko Administrazio Orokorretik (EAO) kanpoko eragile eta erakunde ofizialen nahiz gizarte zibilaren lankidetzarekin identifikatzen dute lankidetza deszentralizatua (AIETI, 2000: 25). Beste batzuek, berriz, diote gobernu zentralek lankidetzari ezartzen dizkieten mugei aurre egitearren tokiko eta eskualdeko gobernuak bideratutako partaidetza lankidetza dela (Azcueta, 2007: 174-175). Eta bada beste definizio bat, garapenaren ikuspegi normatiboagoa darabilena, zeinak baitio lankidetza deszentralizatua Iparraldeko eta Hegoaldeko gizarteetako eragile sorta zabal batek bere egin duen ikuspegi berri bat dela, haien ekimenen deszentralizazioan oinarritua eta herrialde emaitzen Garapenerako Laguntza Ofizialaren (GLO) neurritz gaindiko zentralismoari aurre egiteko xedez sortua (Dubois, 2000: 121-123).

Labur esanda, lankidetza deszentralizatua ulertzeko bi modu daude:

I. Lankidetza deszentralizatua estatuaren lankidetzaren hedapena da; hau da, estatuaz azpiko mailetakoa administrazioek gobernu zentralen lankidetza politiken osagarri gisa bideratzen duten lankidetza, politika haien diseinuan parte hartu gabe eta haiek zalantzan jarri gabe.

II. Lankidetza deszentralizatua lankidetza alternatibo bat da, GLOaren benetako protagonistek bideratua. Ikuspegi honen arabera, lankidetza deszentralizatuak berariazko nortasuna du; askotariko eragileak ditu partaide; Tokiko Giza Garapenaren ideietan oinarritua da; eta partaidetza, ahalduz, genero ikuspegia eta garapenerako hezkuntza sustatzen ditu. Lankidetza hori eremu global berri batean gertatzen da; ez da alde biko eta alde anitzeko lankidetzaren osagarri soila; eta munduko beste herri eta tokiekin batera garapena sustatzeko ezartzen diren ardatz nagusiak ez dira interes ekonomikoak, komertzialak edo kanpo ekimenara begirakoak, baizik eta nazioarteko solidaritatea, giza garapenaren defentsa eta gizarte justiziaren aldeko lana.

Gure iritzian, estatuaz azpiko mailako administrazioen lankidetzak (batik bat autonomia erkidegoenak)

<sup>1</sup> Europar Batasunak «eragile ez-estataleak eta tokiko agintariak» bideratutako lankidetzarekin identifikatzen du lankidetza deszentralizatua; eta ELGak, berriz, «laguntza hedatua» deritzo lankidetza mota horri. Estatuaz azpiko mailetakoa eragileek gauzatzen duten lankidetza deszentralizatua izendatzeko lankidetza ofizial deszentralizatu esapidea ere erabili ohi da (Díaz Abraham, 2008).

ezaugarri eta nortasun propioak ditu, eta horrexegatik erabaki genuen lankidetzaren deszentralizatuaren bigarren ikuspegi hori hartzea lan honen ardatz. Bide batez, argitu beharra dago estatuaz azpiko mailetakoa eragilean laguntza ofizial guztiak ez duela zertan izan beti deszentralizatuak. Are gehiago, azkenaldian, bai autonomia erkidegoak bai beste gobernu ez-zentral batzuk gero eta ekimen gehiago bideratzen ari dira alde biko eta alde anitzeko lankidetzaren moduan<sup>2</sup>. Nolanahi ere, azpimarratzekoa da autonomia erkidegoen lankidetzaren %65-70 deszentralizatu dela oraindik, GGKEen bidez bideratzen baita GLOa<sup>3</sup>.

## 1.2 Lankidetzaren deszentralizatuak, eta pobrezia kontrako borroka eta laguntzaren eraginkortasunari buruzko adostasun handiak

Milurteko berrian, nazioarteko garapen eta lankidetzaren agenda berriro definitu delarik (MGHak eta Parisko Adierazpena), lankidetzaren deszentralizatuak galdu egin dituzte garai bateko nagusitasuna eta protagonismoa, eta alde batera gelditu dira garapen eta lankidetzaren agenda nagusia osatzeko garaian. Kasu batzuetan, men egin diete koordinazioaren eta bateratzearen aldeko deiei, eta kanpo interesen, interes ekonomiko eta komertzialen edo/eta estatuaren lankidetzaren zerbitzura jarri dituzte beren lankidetzaren ekimenak. Estatuaz azpiko mailetakoa lankidetzaren horien ardatzak

alde biko eta alde anitzeko agentziekiko koordinazioa eta bateratzea izan dira, eta beren ekimenak MGHei eta laguntzaren eraginkortasunari begira moldatzea, modu erabat akritikoan<sup>4</sup>.

Azken hamarkadan, doitze ekonomikoari eta merkataritza askeari uko egin gabe, bertan behera gelditu da politika neoliberalen errezeta unibertsalak ezarritako *Washingtoneko adostasun* zaharra, eta adostasun berri bat sortu da, MGHetan eta Parisko printzipioetan oinarritua. Hauek dira GLOaren nazioarteko sistema berriaren oinarriak: pobrezia murriztea, garapen helburu gisa; emaile-hartzaile harreman berri bat, jabeakuntzan, lerrokatzean, bateratzean eta emaitzei begirako kudeaketan oinarrituta<sup>5</sup>; laguntza tresna berriak (aurrekontu babesa, ikuspegi sektoriala -SWAp-, zorra murrizteko ekimenak, funts globalak...); baldintzazkotasuna ikuskatzea, elkarrizketa politikoari eta elkarte edo *bazkidetzei* nagusitasun handiagoa ematearren; pobrezia kontrako dokumentu estrategikoak -PSRP, ingelesezko izenaren siglak-, NBEren, NDFren, EBren eta alde biko agentzia nagusien estrategien oinarri direnak; eta laguntzaren eraginkortasuna bermatzeko egiturazko aldaketak egin ezeari baliabideak areagotzea alferrik izango dela aitortzea.

GLOen egitura berri horretan, ez ziren kontuan hartu lankidetzaren eragile ez-zentralak, 2008an Accran egindako Laguntzaren Goi Mailako III. Forora arte. Parisko

<sup>2</sup> Alde biko lankidetzak zera esan nahi du: estatu bateko administrazio publikoek zuzenean estatu hartzailearekin bideratzen dituen garapen lankidetzako ekimenen multzoa. Alde anitzeko lankidetzaren berriz, gobernuak egindako ekimenetan oinarrituta nazioarteko erakundeek gauzatzen duten lankidetzaren da. Oro har, alde biko lankidetzaren lotuagoa izaten da herrialde emailearen interes politiko, komertzial eta ekonomikoari; alde anitzeko lankidetzaren berriz, lankidetzaren molde neutroagotzat hartua da, nazioarteko organismoek bideratzen duten heinean.

<sup>3</sup> GGKEen bitartez bideratzen diren baliabide gehienak autonomia erkidegoetatik eta tokiko erakundeetatik datoz. 2007an, 512 milioi eurora iritsi zen estatuaz azpiko mailetakoa administrazioen lankidetzaren, eta horietatik 333,8 milioi GGKEetara bideratu ziren. Aldiz, Estatu Administrazio Orokorren GLOaren %7,1 bakarrik bideratzen da GGKEen konfinantzaketarako. Horrek adierazten duenez, estatuak nahiago du funts gehienak beste mota batzuetako lankidetzetara bideratzea: zuzeneko lankidetzaren, alde bikora eta alde anitzekora (Intermon-OXFAM, 2009).

<sup>4</sup> Milurteko Adierazpenaz eta MGHez (2000) gainera, pobrezia kontrako borroka koordinatzeko eta bateratzeko nazioarteko hitzarmen hauek dira aipatzekoak. XXI. mendeko laguntzen sistema berrian: a) Garapenerako Finantzaketaren Nazioarteko Konferentzia edo Monterreyko Hitzarmena (2002), zeinetan proposatu baitzen laguntza gehiago eta hobea, eta kanpo zorraren eta merkataritzaren politikak erreformatzea; b) GLOa Bateratzeari Buruzko Adierazpena (2003), garapenerako laguntzaren eraginkortasuna areagotzeko neurriak ezartzen saiatu zena, gobernuen lidergoaren eta herrialdearen jabeakuntza aldarrikatuz; eta c) Laguntzaren Eraginkortasunari buruzko Goi Mailako Foroak edo Parisko (2005) eta Accrako (2008) adierazpenak, jabeakuntza, lerrokatze, bateratze eta emaitzei begirako kudeaketaren bidez laguntza sisteman ordena ezartzeko xedea dutenak, kontuan hartuta sistema horren koordinazio falta, deszentralizazioa eta arau falta.

<sup>5</sup> Jabeakuntzaren printzipioak lotura du herrialde bazkideek beren garapenaren agenda finkatzeko konpromisoa hartzearekin eta haien gaineko agintze eraginkorra gauzatzearrekin, beren garapenaren politika, estrategia eta sistema nazionalak atzerriko baliabideetan oinarrituak direnean. Lerrokatze printzipioak emaileen eta bazkideen arteko harremanaz dihardu: emailek konpromisoa hartu behar dute bazkideen agendarekin lerrokatze eta haiek ezarritako sistemak erabiltzeko; eta bazkideek, berriz, laguntza hori administratzeko erakunde eta politika eraginkorren finkatzeko. Bateratze printzipioak xedapen komunak beren gain hartzeko, prozedurak sinplifikatzeko eta informazioa partekatze konpromisoa duten emaileen arteko erlazioaz dihardu. Eta, azkenik, emaitzei begirako kudeaketaren xedea da garapenerako baliabide nazionalak nahiz atzerrikoak garapen helburuak betetzeko modu eraginkorragoan erabiltzea.

Adierazpenean sakontzearen, erabaki zen gizarte zibilarri garrantzi handiagoa ematea, herrialde pobretuetan garapen prozesuen jabekuntzari dagokionez, eta eragile deszentralizatuak sartzea emaile eta bazkide elkarte berrietan. Eragile eta gobernu ez-zentral horiei parte hartzeko gonbita egin zitzaion unean, krisi ekonomikoa zegoen, eta ez ziren betetzen ari pobreziaren kontrako finantza konpromisoak; horrez gainera, zalantzan zegoen GLOen nazioarteko sistema bera, arrazoi asko direla eta<sup>6</sup>. Emaitzei begirako kudeaketa eredu berria abian jartzeko zailtasun teknikoek gainera, muga politikoak eta kontzeptuzkoak ere bazeuden, hala nola, GLOa emaile nagusien interes geoekonomikoei lotuta dagoela oraindik, eta garapenaren erronkak GLOaren baliabideak ugaritze hutsarekin lortu nahi diren pobreziaren kontrako helburuetara mugatuak direla (Dubois, 2007: 1-26).

MGHen agenda berria eta Parisko printzipioak ez dira emaileen eta bazkideen artean berdintasunean egindako elkarrizketaren emaitza, ez da eragile zentralen eta ez-zentralaren arteko elkarrizketaren emaitza; aitzitik, GLB/ELGak eta MBk finkatuak dira, eta gerora Nazio Batuek eta gainerako herrialde emaileek beren gain hartuak. Herrialde *bazkideek* ezin izan dute erakunde eta emaile indartsuenek egindako proposamenez *jabetu* besterik egin, eta emaile ez-zentralak, bestalde, ez dute ezertan esku hartzerik izan, edo entzungor egin diete egituraketa berrian.

### 1.3 Autonomia erkidegoen lankidetzak

Giza garapenak eraldaketarako indar handiagoa izan dezan partaidetza eta genero ikuspegia hobetzen laguntzeko, ikuspegi horien diagnostiko orokorra egingo dugu aurrerago, erkidegoen lankidetzak legeen eta urte anitzeko plan estrategiko nagusien azterketan oinarrituta. Gure azterlanaren helburua da autonomia

erkidegoetako eragile publiko eta pribatuen laguntza duten Hegoaldeko komunitateen garapen ekimenetan ikuspegi horiek benetan txertatzeko giltzarrietan sakontzea. Baina, diagnostikoa egin aurretik, funtsezkoa da lankidetzak horien berezitasunak, bilakaera, gaur egungo egoera eta aurrera begirako erronkak azaltzea.

#### 1.3.1. Autonomia erkidegoen lankidetzaren sorrera, bilakaera eta gaur egungo egoera

Lehenik eta behin, nabarmendu beharra dago Espainiako estatuko fenomeno nahiko berezia dela tokiko eta eskualdeko erakunde publikoen garapenerako lankidetzak mota hori<sup>7</sup>, beren GLOak batik bat GGKEen eta gobernu kanpoko beste eragile batzuen bitartez bideratzean datzana; nolana ere, gero eta eredu zabalduagoa da beste herrialde batzuetan ere, batez ere GLB/ELGako kideen artean<sup>8</sup>. Espainiari dagokionez, azken hiru hamarkadetan gora egin du eragile ez-zentralen lankidetzak, bai kuantitatiboki bai kualitatiboki; baina ez da izan behar adinako koordinaziorik lankidetzak ofizial deszentralizatuan, edo, are gehiago, gobernu zentralaren lankidetzak politikatik berezita egon da, baina hura zalantzan jarri gabe, betiere.

Espainiako estatuan lankidetzak deszentralizatuaren modalitate berezi hori sortzeko bi elementu eragile nagusi izan ziren (Del Olmo, 2006:12-14; Zurita, 2007:417-418):

- I. Autonomien estatu berriko eskuduntzen banaketaren eztabaidak. Zehazki, autonomia erkidegoek kanpoan jarduteko aukerari buruzkoa.
- II. Herritarren presioa eta nazioarteko solidaritatea, 1994-1995ean %0,7aren aldeko kanpainak eta garapenerako lankidetzaren aldeko gizarte mugimenduaren susperraldiak nabarmendua<sup>9</sup>.

<sup>6</sup> Egitura berriaren ahulguneak agerian gelditu dira garapenerako finantzaketaren jarraipenerako Dohan egindako Nazioarteko Konferentzian (2008); bilkura hartan aitortu zuten laguntzaren eraginkortasun printzipioak ez zirela aski garapenerantz eta MGHentzat, ez direlako aintzat hartzen herrialde pobreen garapenerako funtsezko finantza eta merkataritza negoziazio nagusiak eta bazkidetzak ereduak.

<sup>7</sup> Espainiari dagokionez, eta 23/1998 Legean lankidetzak deszentralizatuak esapidea hitzez hitz aipatzen ez bada ere, berriaz aitortuta dago lankidetzak modalitate hori. Lege horretan esaten da erakunde eta entitate askok parte hartzen dutela lankidetzak politikan, eta «laguntza programa deskontzentratua eta deszentralizatuak garatzea» dakarrela horrek. Ikus Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren 23/1998 Legearen zioen azalpenaren II. atala.

<sup>8</sup> GLB/ELGako kide aipagarriak dira Espainia, Alemania, Belgika eta Italia, eskualdeen eta tokiko erakundeen lankidetzak ofizialen esparruan; Frantzia eta Portugalen, nabarmentzekoak dira udal lankidetzak ekimen batzuk ere (Sarraute eta Théry, 2007).

<sup>9</sup> Herritarren mugimenduaren loraldia autonomia erkidegoetako erreformekin eta 1992ko Autonomia Ituneko eskuduntzak zabaltzeko urratsekin batera gertatu zen, eta Golkoko Gerrari, Ruandako genozidioari eta Balkanetako gatazkari buruzko gizarte mobilizazio eta ekimenekin batera. Horri esker, Espainiako autonomia erkidego eta udalerririk asko Hegoaldeko garapen prozesuak sustatzeko aurrekontu atalak sortzea erabaki zuten.

Ohartarazi nahi dugu azterlan honetan autonomia erkidegoen lankidetzak ofizial deszentralizatuak jardungo dugula, alde batera utzita funtsezkoak diren beste modalitate eta eragile batzuk, adibidez tokiko erakundeak, GGKEak eta lankidetzak eta solidaritate funtsak.

Espainia GLOen emaitzat hartu zuten nazioartean laurogeiko hamarkadaren erdialdera, eta, handik denbora gutxira, autonomia erkidegoen garapenerako lankidetzako lehen ekimenak abian jarri zituzten Euskadik eta Kataluniak. Hain zuzen ere, Nikaragua-ko iraultzarekiko eta Sahararekiko elkartasun politikoa aldarrikatzen zuten herritar mugimenduek egingako presioari esker, tokiko eta erkidegoetako agintek herri haien kausen aldeko baliabideak ezarri zituzten (Ruiz Seisdedos, 2006:95-103; Freres, 2008: 241-243).

1978ko Espainiako Konstituzioan eta autonomia estatutuetan ez zen ageri garapenerako lankidetzaren berriazko aipamenik; baina, hala ere, ez zen eragozten erkidegoek beren finantza autonomikoaren esparruan mota horretako ekimenak bideratzea. Are gehiago: autonomia erkidegoak eta tokiko erakundeak Espainiako mugetatik kanpo jarduteko ahalmena areagotzen saiatu ziren, autonomien estatua indarrean jarri zenean beren autogobernua ahalik eta gehien zabaltzearen, eta garapenerako lankidetzako esku-duntzak bereganatu zituzten<sup>10</sup>.

Lege hutsuneaz eta eskuduntzen gaineko zehaztasunik ezaz baliatuta, autonomia erkidegoek beren sistemak garatu ahal izan zituzten garapenerako lankidetzaren esparruan. 1990eko hamarkadaren erdialdera arte, GLO deszentralizatuak ez ziren oso ugariak, eta, oro har, GGKEen bitartez bideratzen ziren, baina modu boluntarioan. %0,7aren aldeko gizarte mobilizazioen ondorioz, ordea, nabarmen gora egin zuten autonomia erkidego eta tokiko erakundeek garapenerako lankidetzara bideratutako funtsek<sup>11</sup>, eta igoera horrek

eraginda, GGKE asko profesionalizatu egin ziren, finantzabide berri hartarako sarbidea izateko.

1990eko hamarkadan, bizitasun handiagoa izan zuen lankidetzak deszentralizatuak, estatuko GLOak baino (Gómez Gil, 2005:129-131; Del Olmo, 2006:12). Izan ere, ez ziren behar bezala gauzatu alderdi politikoek gizarte zibilarekin hitzartutako Solidaritatearen Aldeko Itunak, eta gobernu zentralaren lankidetzak ez zuten gora egin autonomia erkidegoetako eta tokiko erakundeen lankidetzaren maila berean. Dena dela, milurteko berriaren lehen urteetan nolabaiteko geldiduna izan da lankidetzak deszentralizatuak (EGGKEK, 2003: 3-6).

Nazioarteko garapenari eta lankidetzari buruzko nazioarteko itun berriek eta Espainiako Estatuko Administrazio Orokorren sistemaren berrikuntzak agertoki berri bat sortu dute lankidetzak deszentralizatuaren eragileentzat, oro har, eta autonomia erkidegoetakoentzat, bereziki. Milurteko honen hasieran lankidetzak zentralak eta alde anitzekoak biziberritu egin direla dirudi, eta lankidetzak deszentralizatuak, berriz, ez da gai izan nazioarteko testuinguru berriari behar bezala erantzuteko.

Testuinguru horretan, kontuan hartzeko elementuak dira, orobat, autonomia erkidegoen lankidetzaren garapen juridiko-instituzionala, GGKEen profesionalizazioa eta gizarte zibilarekiko urruntasuna. Autonomia erkidegoen lankidetzak instituzionalizatu eta planifikatu izana eta MGHen eta Parisen agenda hegemonikoa agerian uzten ari dira beren GLOaren zentralizazioa gero eta nabarmenagoa dela. Autonomia erkidegoetako aginte asko nazioarteko eta nazioko esparruetan finkatutako helburuak bere egiten ari dira eta imitatu egiten dituzte haiek lankidetzarako dituzten antolaketak egiturak, tresnak eta modalitateak; horren ondorioz, estatuen eta nazioarteko erakundeen lankidetzak zentralen zerbitzura daude eragile deszentralizatuak abian jarritako ekimen asko. Zorionez, hala ere, ez da beti hala, gero ikusiko dugunez.

<sup>10</sup> Ildo horretatik, bereziki esanguratsua izan zen Konstituzio Auzitegiak emandako epai bat (KAE 165/94), autonomia erkidegoei esku-mena aitortzen ziena atzerrian eta, beraz, garapenerako lankidetzaren esparruan jarduteko. Berrikiago, autonomia batzuetako estatu-tuak erreformatu dituzte, eta garapenerako lankidetzaren aipamenak txertatu dira batzuetan. Hala nola, Kataluniakoan (51., 193. eta 197.3. art.); Andaluziakoan (10.3.23. art.) eta atal berezi bat (V), garapenerako lankidetzari buruzkoa, 9. tituluari; eta Valentziakoan (VII. ataleko 62.3. art.).

<sup>11</sup> 1995ean, autonomia erkidegoek eta tokiko erakundeek 85 milioi euro bideratu zituzten Hegoaldeko komunitateekiko lankidetzara; ordu-ra arte, 32 milioi euro ziren. 1995 eta 1999 bitartean, gora jarraitu zuen, beste udalerririk batzuek eta autonomia erkidego batzuek ekimen horiekin bat egin ahala. Dena den, 1999-2002 bitartean askoz ere mantsoagoa izan zen hazkundea (GGKE, 2003).



Azken hamarkadan, finantza konpromisoa formalizatu da erkidegoetako gobernuen lankidetzetan, eta Estatuaren Administrazio Orokorren lankidetzaren araudiari eta egiturei jarraitu zaie<sup>12</sup>. Lankidetzaren deszentralizatu gero eta gehiago arautzen eta instituzionalizatzen ari da, beraz, eta horrek ondorio bikoitza du. Alde batetik, desmobilizazioa eta despolitizazioa gertatzen ari da elkarte sarean, GGKEek proiektuak gauzatzeko duten profesionalizazio eta burokratizazio gero eta handiagoari eta diru publikoarekiko duten mendekotasunari loturik<sup>13</sup>. Eta, bestetik, erkidegoetako aginte batzuk bezerokeriazko sareak eratzen ari dira beren ekimenei sostengua emateko prest dauden erakundeekin (Gómez Gil, 2005: 133).

Laguntzaren eraginkortasunaren eta instituzionalizazioaren eta profesionalizazioaren agendaren testuinguruan, autonomia erkidegoen lankidetzak bi aukera hauen arteko hautua egin beharko du: lankidetzaren eredu zentralak errepikatzen jarraitu, eta lankidetzaren hegemonikoen zerbitzura jardun; edo GGKEen sare sendoak eta partaidetzarako bideak sustatzen jarraitu, eta GGKEen eta gizarte zibilaren arteko estrategien eta elkarrekiko mendekotasunen aldeko apustua egin. Sanchó i Vendrellen (2005:50-51) iradokizunei jarraituz, gure ustez, eskualdeko eta tokiko gobernu eta administrazioek alde batera utzi behar dute erantzukizunak besteren esku uzteko joera, eta lidergoa hartu behar dute lankidetzaren deszentralizatuan; era berean, GGKEek proiektuak gauzatzeko agentzia soil izateari utzi eta tokiko esparru publikoan eginkizun politikoa eta aktiboa hartu beharko lukete.

### 1.3.2. Espainiako autonomia erkidegoen lankidetzaren aukerak eta mugak

Espainiako autonomia erkidegoetako lankidetzaren eragileak aitzindari dituen lankidetzaren modalitate berezi horrek mugatu egiten du Espainiaren lankidetzarako politikaren sendotzea eta GLB/ELGaren herrialde mailako nagusien mailara iristeko prozesua, Espainiako administrazio-ko nahiz nazioarteko organismoetako sektore akademiko askoren aburuz. Azkenaldian, ordea, sektore horiek berak, eta baita EAOk berak ere, askoz ere balioespen hobea egiten dute lankidetzaren deszentralizatuari buruz.

Goian aipatutako muga horien artean, hauek nabarmendu izan dituzte batik bat (Ruiz Seisdedos, 2008: 111; II. Plan Zuzentzailea 2005-2008: 151-152): a) erkidegoetako eta tokiko arduradun politikoen profesionaltasun kaskarra, eta lege eta erakunde esparru ahulak; b) jardueren atomizazioa eta, horren ondorioz, GLOek eraginkortasuna eta kalitatea galtzea; eta, batez ere, c) koordinazio eta lankidetzaren falta, bai administrazio deszentralizatuaren artean, baita administrazio horien eta gobernu zentralaren lankidetzaren artean ere.

Muga horiek sistematikoki agertu izan dira GLB/ELGaren dokumentuetako kritika eta gomendioen atal-letan, eta Espainiako GLOaren deskontzentrazioak eta deszentralizazioak haren eraginkortasunean zituen ondorioei buruz ohartarazi izan dute behin eta berriro. Nazioarteko erakunde horretako kide dira GLOen emaile nagusiak, eta nabarmendu du Espainiako sisteman desegituraketa, gaitzespena eta disfuntzioak gertatzen direla eragileen heterogeneotasunaren ondorioz<sup>14</sup>.

<sup>12</sup> Lankidetzari buruzko 23/1998 Legea onartu ondoren, Madril izan zen Lankidetzari buruzko Legea egin zuen lehen erkidegoa (Madrilgo Erkidegoko 13/1999 Legea), eta Kanarietako Autonomia Erkidegoa izan da azkena (Kanarietako Autonomia Erkidegoko 4/2009 Legea). Azken hamar urteetan, autonomia erkidego guztietan sortu dituzte aholkularitza kontseiluak eta urte anitzeko planak; gainera, gehienek dituzte edo izango dituzte lankidetzaren agentziak, koordinazio batzordeak edo lurralde arteko koordinaziokoak, eta tokian tokiko bulegoak (Alberdi, 2010a: 161-185).

<sup>13</sup> GGKEen eta politika publikoen diseinuan parte hartzeko gune eta mekanismoen burokratizazioaren ondorioz, herritarrek gero eta interes gutxiago eta ezjakintasun handiagoa dute lankidetzaren ekimen deszentralizatuari buruz, eta GLO deszentralizatuaren murrizteko erabil-tzen ari dira aitzakia hori (Del Moral, 2008:106).

<sup>14</sup> GLB/ELGak 1994an iradoki zuen Espainiako laguntzan nolabaiteko zentralizazioa ezartzea komeni zela (Grasa, 1999), eta 2001ean ohartarazi zuen behar baino eginkizun nabarmenagoa zutela GGKEek, autonomia erkidegoek eta tokiko erakundeek Espainiaren lankidetzaren politikan, eta horrek protagonismoa kentzen ziola Kanpo Arazoetako Ministerioari (PACI, 2001). Ildo beretik, 2002ko pareen azterketan, GLBk Kanpo Arazoetako Ministerioari gomendatu zion protagonismoa harrezkara, laguntza deszentralizatu gero eta ugariagoen eta Espainiaren lankidetzaren politikaren arteko sinergiak bermatzeko, betiere politiken koherentziaren helburuari begira; eta ohartarazi zuen eragile gehiago izateak zaildu egingo lukeela koordinazioa eta areagotu egingo litzukeela trukeen kostuak, bai Espainiari bai herrialde hartzaileetako eragileei (DAC/OECD, 2002). Zehazki, neurri hauek iradoki ziren ordua: koordinazio handiagoa EAOn eta autonomia erkidegoen eta tokiko erakundearen lankidetzaren arteko lehenetsun geografiko eta sektorialetan; haien lankidetzaren ekimenen jarraipen eta ebaluazio zorrotzagoa; eta lankidetzaren deszentralizatuaren ekimenak txertatzea Herrialde Estrategietan. 2007ko azterketan (DAC/OECD, 2007), GLBk aitortu egin zituen Espainiako gobernuak garapenerako politika estatu politika bihurtzeko egindako ahaleginak, eta eragile ofizialen konpromisoa sustatu izana, nahiz eta eragile horietako batzuek ez zeukaten bide hori hartzeko inolako asmorik, itxuraz.

Parisko agenda betetzen jarraitzeko konpromisoari dagokionez, gomendio hauxe egin du GLBk: autonomia erkidegoetako administrazioek parte har dezatela Espainiaren lankidetzaren politiken kontsulta, prestakuntza eta gauzatze prozesuetan, beren ikuspegia bat etor dadin lankidetzan kide dituzten herrialdeen ikuspegiarekin.

GLB/ELGaren ikuskaritzetan bildutako ohar horiek Espainiako GLOen deszentralizazioa murrizteko aitzakia gisa hartu dituzte lankidetzako sektore batzuek. Hala, askok errezeloz hartzen dute autonomia erkidego batzuek lankidetzarako autonomiaz egiten duten defentsa sutsua, eta autonomia erkidegoek bete beharreko betebeharrak gisa planteatzen da administrazioen arteko koordinazioa eta osagarritasuna, estatua baino maila apalagoko erabaki guneak baitira eta men egin behar baitiote goragoko aginteak, hau da, nazioko gobernuak markatutako politikari.

Ez gatoz bat lankidetzaren deszentralizatuari buruzko ikuspegi horrekin. Hain zuzen ere, muga horiek gainditzen ahalegintzen diren ekimen eta esperientziak dira guri interesatzen zaizkigunak, aintzat hartzen dituzten beren ahalmenak: interes geoekonomiko, komertzial eta politikoak alde batera uzteko ahalmena (AIETI, 2000:25-26); herritarren partaidetza sendotzeko ahalmena (Zurita, 2007:418-420); kulturen eta komunitateen artean solidaritatezko harremanak sustatzeko erraztasuna (Ruiz Seisdedos, 2008:107); tokiko eta lurraldeko esperientzia trukean espezializazioa (Zurita, 2007:424-425); eta sektore eta geografia espezializazio handiagora<sup>15</sup> gobernu zentralen lankidetzari buruz (Del Olmo, 2006: 17-22).

Paradoxikoki, azken urteetan, nazioarteko lankidetzaren emaile nagusiak aukera horietako batzuek ohar hartzen hasi dira. GLBk dio autonomia erkidegoak eta tokiko erakundeak osagarri egokiak izan daitezkeela Espainiako laguntza sistemarentzat; zehazki, abantaila konparatibo

nagusiei dagokienez: hau da, tokiko gobernuen gaitasuna sendotzeko dagokionez, gizarte zibilaren eta botereen arteko elkarreaginari dagokionez, eta ekintza humanitarioko sistemari dagokionez. EBk ere interes handiagora erakutsi du lankidetzaren deszentralizatuarekiko, lankidetzaren modalitate horrek ahalegin berezia egiten baitu EBk eta haren kide diren estatuek baliabide gutxien jartzen duten esparruetara baliabideak bideratzeko, eta gaitasun berezia baitu diplomaziak eta lankidetzaren zentralerak arrakastarik ez duten testuinguru konplexuetan jarduteko (Alberdi, 2010b: 295-298).

Gainera, Dohako gomendioen ondoren, eta kontuan hartuta Accran egin ziren aipamenak -eragile eta gobernu deszentralizatuak Parisko agendan gehiago parte hartzea komeni zela esan zen-, eragile deszentralizatuak protagonismo handiagora eman nahi zaie 2011n Seulen egingo den Laguntzaren Eraginkortasunari buruzko Goi Mailako IV. Foroan<sup>16</sup>. Zalantza dago, dena den, eragile ez-ofizialek laguntzen egiturari izan beharreko partaidetza berraztertze horren arrazoiak: benetan ote den eredu berri horren aitzindari izan direnek okerrak zuzentzeko asmoak eragina, edo zerikusit handiagora ote duen gaur egungo krisi ekonomikoarekin eta garapena finantzatzeko baliabideen atzeraldiarekin.

Gure ikuspuntutik, eraginkortasunaz harago eta alde biko eta alde anitzeko eragileak aintzat hartzen hasi diren beste ontasun batzuek harago, alderdi hauek hartu beharke lirake aurrerantzean ere lankidetzaren deszentralizatuaren osagai nagusitzat: gizarte zibileko eragile berriak biltzea eta Hegoaldeko herrialdeetako eragileek gehiago parte hartu ahal izatea beren garapenean (Dubois, 2000:121), eta berezitasun propioei eustea, hau da, tokiko garapena sustatzen jarraitzea; eta herritarrengandik hurbil aritzea, askotariko errealitateen artean loturak eta konplizitate sortzen jarraitzeko (Sancho i Vendrell, 2006:42-50).

<sup>15</sup> Eztabaida handiak izan dira horri buruz. Hain zuzen ere, EAOk sektoreek eta sektore akademikoek kritikak egin dituzte, lankidetzaren deszentralizatuaren parte hartzen duten eragileen ugaritasunak Espainiako GLOen sakabanaketa geografikoa eta tematikoa areagotzea dakarrelako. Nolanahi ere, erlatibizatu egin behar da hori, kontuan hartzen badugu GLO deszentralizatuaren %70 baino gehiago Espainiako Gobernuaren PZren lehentasunezko herrialdeetara bideratu dela. Aldiz, GGKEek eta eragile deszentralizatu nagusiek diote sakabanaketa gehiago dagoela EAOn lankidetzaren, autonomia erkidegoen lankidetzaren baino. Hain zuzen ere, autonomia erkidegoen GLOak Erdialdeko Amerikako herrialde batzuetara (Guatemala, Salvador, Nikaragua eta Honduras), Hego Amerikara (Peru, Bolivia, Kolonbia, Ekuador), Marokora eta Palestinara biltzen dira. Hegoaldeko sozietateen eta Espainiako estatuaren partaidetza altua, Latinoamerikarekiko lotura historikoa eta internazionalismo solidarioa dira, dirudienez, geografia esparruen lehentasun horren arrazoiak. EAOn GLOa, berriz, interes komertzialen eta kanpo politikaren eraginpean dago, gehiago; hain zuzen ere, Nigeria, Turkia, Aljeria, Txina, Irak, eta Bosnia Herzegovina dira herrialde hartzaileetako batzuk. Guatemala, Maroko eta Kolonbia soilik datoz bat autonomia erkidegoen GLOaren hamar herrialde hartzaileekin (Hombrado, 2008).

<sup>16</sup> Topaketa horretan parte hartzeko gonbita egin diete Hegoaldea-Hegoaldea lankidetzaren eragileei eta GLB/ELGako kide ez diren emaileetakoiei (batik bat Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika).



### 1.3.3. Euskal Autonomia Erkidegoaren lankidetzari buruzko zenbait ohar

Lankidetzaren politiketan partaidetza eta genero ikuspegia txertatzeari buruzko esparru kontzeptualari heldu eta haren azterketa egiten hasi aurretik, aipamen labur batzuk egitea komeni da garapen agenda berria eta milurteko berriak ekarri dituen erronkak direla eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lankidetzak izandako bila-kaerari eta hartutako jarrerari dagokienez.

Euskal lankidetzaren mugimendua %0,7aren aldeko kanpainekin sortu zen, eta oso bizkor erantzun zuten erakundeek, Garapenerako Lankidetzaren Funtsak sortuz (GLF). Nazioarteko elkartzuna sustatzeko sorturiko lehenengo GGKE laikoek bat egin zuten eliza katolikoak eta haren misioek egindako ahaleginarekin, eta euskal administrazioei eskatu zieten beren aurrekontuen %0,7 bidera zezatela Hegoaldeko herrialdeekiko lankidetzara. Euskal lankidetzaren erakundeak nahiz udaletakoak, lankidetzaren deszentralizatuaren aitzindariekiko izan zen.

1980ko hamarkadaren erdialdera, GLFak sendotzen hasi ziren; hain zuzen ere, orduan sortu zen Lankidetzaren Zuzendaritza -Eusko Jaurlaritzaren Atzerri Ekimenerako Idazkariaren mende-, eta hari eman zioten funts gero eta handiago haiek kudeatzeko ardura (GGKEek exekutatu zituzte, %80tik gora). Garai haren bereizgarri nagusiak hauek izan ziren: enpresak lankidetzaren eragile modura aritzeari buruzko eztabaida, euskal lankidetzaren ofizialak euskal diasporaren herrialde hartzaileekin zuen lotura estua, Garapen Lankidetzarako Aholkularitza Kontseiluaren sorrera (1998), aholkularitza organo ordezkari gisa, eta Arabako Foru Aldundia GLFtik irtezea.


2000. urtean euskal GGKEek egindako biltzarrean, eztabaida bizia izan zen lankidetzaren deszentralizatuaren etorkizunari buruz (EAEko GGKEK, 2000)<sup>17</sup>, eta, haren ondoren hasitako etapan, euskal lankidetzaren ofiziala gehiago instituzionalizatu eta arautu zen, eta gora egin zuen funtsen zenbatekoak, 2012rako

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren %0,7ra iristeko asmoz. Gainerako foru aldundiak ere GLFtik atera ziren, eta beren diru sortak kudeatzeko egitura propioak abian jarri zituzten. Bien bitartean, Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzaren Zuzendaritza, ordura arte Lehendakariaren mendeko Kanpo Ekimenerako Idazkaritzaren barruan eta EAJren esku egondakoa (1985-2001), Gizarte Gaietarako Sailaren esku gelditu zen, EAJren gobernu bazkide Ezker Batua buruz zela (2001-2009).

Sailen antolaketa berri horri esker, gehiago bereizi da autonomia erkidegoaren lankidetzaren EAJren beste kanpo interes batzuetatik, betiere, lankidetzaren deszentralizatuaren eredu propio baten oinarriak finkatzea helburu hartuta. Hauek dira eredu berri horren ardatzak: plangintza aktiboagoa eta epe luzera begirakoa; lehen-tasun geografiko (batik bat Erdialdeko Amerika eta Hego Amerikako herrialde batzuk) eta tematiko (zazpi lan sektore nagusi identifikatzea -ikus 1. grafiko-, besteak beste tokiko agintea eta emakumeen ahalduak) zehatzagoa; eragileen arteko koordinazio gehiago; Tokiko Giza Garapenerako prozesuei nagusitasuna ematea; eta lankidetzaren diharduten aldatetarako subjektuen baldintzarik gabeko babesa (Fernández, 2006:53-71).

Planifikazioa sistematizatu zen, 2005-2008 eta 2008-2011 Plan Estrategiko eta Plan Zuzentzaileen bidez, eta lankidetzari buruzko Euskal Legea onartu zen (1/2007), baita Garapenerako Euskal Agentziarena ere (5/2008); hala, autonomia erkidegoaren lankidetzaren instituzionalean eskema berri bat ezarri zen: Agentzia zen kudeaketarako organo zentrala, lankidetzarako Euskal Kontseiluak hartu zuten ordura arte Aholkularitza Kontseiluak betetzen zuen tokia -hura ez baitzen behar bezain eraginkorra-, eta Erakunde Arteko Batzordeak euskal administrazioen arteko lankidetzaren koordinazioa lortzeko helburua zuen. Nolanahi ere, berrikuntza haiek ezarri zirenetik bost urte igaro dira ia, eta eskema ez dago guztiz operatibo oraindik.

<sup>17</sup> Ondorio hauek dira bereziki aipatzekoak: a) giza garapen iraunkorraren helburua ahaltzen ari da, pobrezia kontrako borroka mesedetan; b) lankidetzarako politikaren bidean eta %0,7aren bidean aurrera egiten jarraitzeko konpromiso politikorik ez dago; c) GGKEen eta erakunde publikoen arteko erlazio kaskarra, lankidetzarako Kontseiluaren funtzionamendu txarrak erakusten zuenez; d) lankidetzaren deszentralizatuaren eredu berri bat finkatzeko premia, helburu eta estrategia berrietan oinarriturik; e) GGKEen barne dinamikak eta beste eragile batzuekiko erlazioak hobetzeko aukera, arreta gehiago emanez gizarte partaidetzari, koordinazioari, ekintzen birpolitizazioari eta beste gizarte mugimendu eta eragile batzuekiko harremanari; f) Hegoaldeko GGKEekiko lana eta erlazioak sendotzea; g) kausan oinarrituriko marketingaren arriskuakiko kezka eta hedabideekiko harreman urria; eta h) garapenerako hezkuntza kritikoa sendotzeko premia.



Iturria: EJ, 2008: 44.

PSEren gobernu berria (2009) ahaleginak egiten ari da Lankidetzarako Euskal Agentzia eta gainerako egiturak abian jartzeko. Euskal lankidetza instituzionalizatzea eta formalizatzea ardatz dituen egoera berri honetan, hauek dira erronka nagusiak (González eta De la Fuente, 2007:47-51; Alberdi, 2010a: 187-203):

- EAEko aurrekontuen %0,7 lankidetzara bideratzeko helburua betetzea, krisi ekonomikoko garaia izan arren. 1/2007 Legearen euskal GLOaren aurreikuspenaren arabera, une hartako 39 milioi euroak bikoiztu beharko lirateke 2012rako aurreikuspen hori betetzeko (González eta De la Fuente, 2007: 14-26). 2009rako autonomia erkidegoaren lankidetzarako aurrekontua 51 milioi eurokoa zen, baina ez dirudi aurreikuspenaren arabera beharko liratekeen 78 milioi horietara iritsiko denik.
- Lankidetza deszentralizatuak gaur egungo nazioarteko egoeran dituen erronkei buruzko gogoeta kritikoa eta gizarte eztabaida areagotzea. Aurreko ataletan aurkeztu dugun lankidetzaren agenda hegemoniko berriari buruz eztabaida kritikoa egiteaz gainera, euskal lankidetza eragileek gizarte desmobilizazioaz eta herritarren partaidetza urriaz arduratu beharko lukete. Ezinbestekoa da lankidetzarako politikaren instituzionalizazioan eta sendotzean aurrera egin ahala euskal lankidetza eta nazioarteko solidaritatea indartzea.

- Lankidetzarako Euskal Agentzia abian jartzea (5/2008 Legea eta 95/2010 Dekretua), langile gastuen igotzea eta zeharkako beste gastu batzuek kalterik eragin ez diezaioten euskal GLOaren eraginkortasunari.
- Erakunde Arteko Batzordea abian jartzea (71/2009 Dekretua), toki, foru eta erkidegoko administrazioen lankidetzaren arteko elkarlana eta koordinazioa areagotzeko; eta estrategia bateratu bat prestatzea, Espainiako, Europako eta nazioarteko lankidetzekiko harremanei buruz.
- Garapenerako Lankidetzako Aholkularitza Kontseiluaren funtzionamendua hobetzea (158/2008 Dekretua); horretarako, bitarteko gehiago, aldizkakotasuna, aniztasuna eta osoko bilkuraren nahiz batzordeen funtzionamendu zuzena bermatu beharko dira.

Erronka, orain, hauxe da: azken hamarkadan itxuratu joan den erakunde antolaketa berria eta eredu propioa praktikan gauzatzea. Eta, horretarako, ezinbestekoa izango da, besteak beste: gaur egungo lankidetza politiken analisi kritikoa egitea; eragile publikoen neurritz gaindiko burokratizazioa eta instrumentalizazioa saihestea; politikan eragiteko eta kontzientziazioa sustatzeko bide berriak bilatzea; erakunde publikoetan eta GGKEetan parte hartzeko eta haiek koordinatzeko organo berriak sortzea eta sendotzea (Euskadiko GGKEen Koordinakundea, adibidez); herrien arteko solidaritatezko loturak berritzea; eraldaketarako eta aldaketarako ahalmen gehien duten eragileak sustatzea; eta Hegoaldeko mugimendu eta organizazioekin lankidetzan aritzea.

## 2. Partaidetza eta genero-ekitatea, Tokiko Giza Garapenaren osagai gisa

### 2.1. Tokiko Giza Garapena

Giza Garapena lankidetzan diharduten eragile askoren lanaren ardatz bihurtu da, bereziki eragile deszentralizatuena. 1990eko hamarkadaren hasieran GNBPre lehen txostenetan argitaratutako giza garapenaren ideiek esparru teoriko alternatibo bat sortu dute, oso iradokitzaila, garapenerako politiken ekimen zenbaitentzat, bereziki nazioarteko lankidetzaz berritzeari dagokionez. Azken bi hamarkada hauetan, giza garapen kritikoak aintzat hartu du esparru normatiboa, erabakimenez, eta hori funtsezkoa da garapenak, benetako garapen izango bada, bidezkoa izan behar duela diotenentzat.

Tokiko Giza Garapenak (TGG) beste urrats bat egin du (Dubois, Guridi, López Belloso, 2011:11-25)<sup>18</sup>, eta lankidetzarako erreferentzia izan nahi du, GGKEak eta estatuaz azpiko mailetako aginteak gidari dituela. GNBPre oinarrituriko ikuspegia da, baina hark baino zorrotzagoa du eduki normatiboa; hain zuzen ere, ongizatearen erreferentzia berri bat proposatzen du, tokiko izatearen definizio berri bat ematen du, eta gaitasunen garapena azpimarratzen du, gaitasun kolektiboena batik bat. TGGaren erreferentzia berri horren arabera, gizarte/komunitate bakoitzak

zehaztuko du zer-nolako ongizatea gertatzen zaion baliagarria eta zer prozesuren bidez iritsiko duen ongizate hori, partaidetza prozesu baten bidez. Ongizate indibiduala izango da, baina kolektiboa ere bai, aldi berean; ez baitago ongizatea definitzerik aintzat hartu gabe pertsonen arteko harremanak eta gizabanakoa bizi den kultura.

Ildo horretatik, talde batek bere proposamen kolektiboak egiten dituen espazioa da eremu lokala edo tokikoa. Tokikoa izateak ez du esan nahi politika jakin batzuk toki jakin bati aplikatzea soilik; eta globalizazio neoliberalaren prozesuari aurre egiteko esparru idealarekin identifikatzen da, nazioarteko agertoki berrian alternatibak eraikitze espazio estrategikoa-rekin. Hala, tokiko garapenaren beste adiera batzuetatik bereizi beharra dago, bai komunitatearen balioa idealizatzen eta bakartzea sustatzen dutenetatik, baita tokiko eragileak merkatu globaletan txertatzearen haien espezializazioa eta lehiakortasuna abiapuntu dutenetatik ere. Azken batean, TGGak garapenari buruzko beste ikuspegi mugatuagoek baino tarte handiagoa uzten dio jarrera kritikoari; gaitasun indibidualen eragiten du, baina baita gaitasun kolektiboetan ere; tokiko komunitateen ahalduntzea bilatzen du,

<sup>18</sup> Jarraian aurkeztuko ditugun eduki gehienak Tokiko Giza Garapenari buruz Hegoan (Euskal Herriko Unibertsitateko Nazioarteko Lankidetzaz eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua) antolatu diren mintegi eta aurkezpenetatik atera ditugu. Eskerrak eman nahi dizkiogu Alfonso Duboisi, aukera eman digulako hemen aurkeztuko diren eta obra honetan laburbilduta dauden ideien oinarritzko dokumentu eta aurkezpen zenbait erabiltzeko.

komunitate horiek estuago kontrola ditzaten globalizazioaren barruan izango duten garapena baldintzatzen duten mekanismoak, eta alternatibak sor ditzaten, jabe-kuntza demokratikoan oinarrituta.

Beste alderdi batzuekin batera, erabakiak hartzeko partaidetza demokratikoa eta genero ikuspegia txertatzeko funtsezkoak dira TG Gan eta eraldaketa xede duen lankidetzaren deszentralizatua. Partaidetza eta ahalduak elementu estrategikoak dira: izan ere, benetako partaidetza prozesurik ezean, ez da izango garapenaren definizio propiorik; hau da, erabakiak hartzeko eta norberaren etorkizuna planifikatzeko partaidetza aktiborik gabe ezin uler daitezke ongizatea eta gaitasunen garapena. Eta ongizateak guztiontzako ongizate behar du izan, eta, hortaz, lehentasuna izango du genero berdintasunik eza gainditzeak eta emakumeek emakume izateagatik jasaten duten diskriminazioa deuseztatzeak, gizonei nahiz emakumei beren giza garapenaren subjektu izateko aukera emango dieten erlazio politiko, ekonomiko eta soziokultural berriak eraikitzeko.

Lan honen egileen ustez, lankidetzaren deszentralizatuak -baita autonomia erkidegoen ere- izugarriko ahalmena dute tokiko garapen prozesuei laguntzeko. Hurrengo ataletan zehaztuko dugu zertan diren partaidetza eta genero ikuspegia TG Gan. Kontzeptu horiek definitzeaz gainera, haien esanahiaren bilakaera laburtzen saiatuko gara: azken hamarkadetak nazioarteko garapen eta lankidetzaren ikerketetan zer esanahi, ekimen, eta proposamen zabaldu diren partaidetzari, ahalduzeari eta gizonen eta emakumeen ateko berdintasunik ezari buruz. Ariketa horren azken xedea hau da: tokiko/erkidegoeko garapen ekimenetarako eta erkidegoen lankidetzaren ekimen horiei laguntzeko baliagarri izan daitezkeen partaidetzari eta genero-egitateari loturiko kategoriak, proposamen teorikoak eta praktikokoak identifikatzea.

## 2.2. Partaidetza demokratikoa eta ahalduak, TG Gan funtsezko osagaiak

### A. Definizioa

Orain dela hamar urte baino gehiago Hegoan prestatu genuen hiztegiaren arabera (Pérez de Armiño, 2000), esanahi hau da partaidetza hitzak: garapenerako proiektu, programa edo politika batean interesa duten komunitate edo gizarte sektoreek -batez ere baztertuak edo margintuak- horietan eragiteko prozesua,

erabakiak hartzen eta baliabideak kudeatzen inplikatzeko prozesua, eta, beraz, beren garapenaren eragile bihurtzen dituen prozesua (Alberdi eta Murgialday, 2000:418-419). Ahalduak, berriz, zera esan nahi du: pertsonak gizarte talde gisa dituzten gaitasunak, konfiantza, ikuspegia eta protagonismoa sendotzeko prozesua, bizi dituzten egoeretan aldaketa positiboak eragiteko aukera ematen diena (Eizaguirre, Murgialday eta Pérez de Armiño, 2000: 220-223).

### B. Partaidetzak eta ahalduak garapen prozesuetan izandako bilakaera

Partaidetza eta ahalduak oso kontzeptu ohikoak dira garapen eta lankidetzari buruzko ikerketetan, ekimen horien hartzaile diren herritarrak garapen prozesuetan murgiltzeko; hainbeste, non elementu horiek oinarriko irizpide eta ezinbesteko baldintza bihurtu baitira emaila askok finantzatzen dituzten programa eta proiektuetan. Prozesu horietan, ordea, partaidetza eta ahalduak txertatzeko askotariko formulak erabili izan dira, garapenari buruz aukeratutako ikuspegiaren arabera eta hark zer interesen mende jardun behar zuen kontuan hartuta. Hala, hitz berak askotariko esanahiak izan ditzake.

Teoria demokratiko erradikalaren proposamenen ildotik -zailtasun jartzen zituen indarrean zeuden agente egiturak eta erabakiak hartzeko bideak-, 1970eko eta 1980ko hamarkadetan, lehen proposamen emantzipatzaileak sortu ziren hezkuntza arloan (Freireren herri hezkuntza), feminismoan (Hegoaldeko eta Iparraldeko emakume eta ikertzaile taldeen sarea -DAWN-) eta gizarte ekintzan (partaidetza ikerketa-ekintza). Proposamen horien ondoren, nazioarteko garapenaren eta lankidetzaren aplikatzeko partaidetza metodologia ugari sortu ziren: batzuek -kanpo eragileek gidatutako landa diagnostiko bizkorak adibidez-, xede instrumental soila zuten; eta beste batzuek, aldiz, komunitateen ahalduzeari ematen zioten nagusitasuna, hala nola, partaidetzako landa diagnostikoak (Zabala, 2000: 199-203; Larrú, 2009:266-271).

Tokiko guneetan eta gune komunitarioetan parte hartzeko zailtasun nagusi hauek identifikatu ziren: eliteek uko egitea boterea elkarbanatzeari eta bezerokeriazko eta mendekotasuneko beren erlazioak zailtasun jartzeari; kolektibo baztertuak ezagutzak eta gaitasun gutxiestea; antolaketa formal, bertikal, hierarkiko eta are autoritarioaren kultura, erakunde administratibo eta

sozialetan; eta garapenerako proiektu eta programen epe laburrerako ikuspegia, eta kostuen eta etekinen irizpi-deak lehenestea. 1980ko eta 1990eko hamarkadetan proiektu eta programek partaidetza aldarrikatzeari kritika egin izan zaio, ez zutelako kontuan hartu boterearen gauzatze bidegabea eta konplexutasuna (Cooke eta Kothari, 2001:1-7), eta ez zietelako behar adinako arretarik ematen maila politiko eta administratiboen ordezkari-tza mekanismoei (Hickey eta Mohan, 2004:20-21).

Gerra Hotzaren ondorengo garaian, orokortu egin zen globalizazio liberalaren pentsamoldea, indartu egin ziren garapen komunitarioaren teoria batzuk, eta nagusitasuna hartu zuten garapenarekin loturiko kategoria berriek -hala nola, kapital soziala, gobernu egokia eta gobernantza demokratikoa-; eta horrek guztiak areagotu egin zuen partaidetzaren eta ahalduntzearen instrumentalizazioa, garapen prozesuetan. Partaidetzak utzi egin zion bere horretan xede izateari, lortu nahi den garapen motari atxikita, eta proiektuetan emaitza hobekak eta eraginkortasun handiagoa lortzeko bitarteko gisa ulertzen hasi zen. Era berean, ahalduntzearen ikuspegi indibidualak (autoestima berreskuratzea eta norberari dagozkion erabakietan parte hartzeko zilegitasuna) gaina hartu zion ikuspegi kolektiboari (pertsonek helburu komun batzuk lortzeko bat egiten dutenean partaidetza areagotzea eta eskubideen defentsa indartzea).

Partaidetza instituzionalizatu egin zen, otzandu; eta partaidetzaren teoria bitarteko baliagarria bihurtu zen komunitate hartzaileak mobilizatzeko, emaileen programak eta zerbitzu eskaintza gidatzeari begira. Ahalduntzeak, bertsio neoliberallean, buruaski izatea eta zerbitzuen estatu eskaintzarekiko mendekotasuna murriztea proposatzen du<sup>19</sup>, eta gaina hartu zion, pixkanaka, gizarte mobilizazioaren bidez estatuaren eta merkatuaren interes hegemonikoei erronka jotzen dien ikuspegi erradikalago bati (Villalba, 2008:303).

Estatu desarrollistak indarra hartu zuen, eta bigarren mailan gelditu ziren komunitatearen partaidetza nabarmentzen zuten ikuspegiak; testuinguru horretan, gobernu egokiaren eta gobernantza demokratikoaren kontzeptuak nagusitu ziren, eta eztabaida teorikoetan berriro agertu zen demokrazia, garapenerako baldintza gisa. 1970eko eta 1980ko hamarkadetan, sektore akademiko batzuek zioten autoritarismoa ez zela garapen ekonomikoarekin bateraezina, eta gobernu ona zela benetan garrantzizkoa<sup>20</sup>; Sobietar Batasunak hondoa jo eta Latinoamerikako eta, ondoren, Afrikako trantsizio politikoak gauzatu ondoren, berriz, gero eta gehiago sendotu da gobernantza demokratikoa garapenerako baldintzat hartzen duen pentsamoldea.

Gobernu ona, pentsamendu neoinstituzionalaren ikuspegitik, perfektutasun instituzionalari lotzen zaio; zehazki, egin beharreko doitze ekonomikoak egiteko gai izango den gizarte baten kohesiorako estatuak behar duen gutxieneko eraginkortasunari; eta gaitasunen ikuspegitik hurbilago, garapenerako helburutzat hartzen da gobernantza demokratikoa, aginte politiko eraginkor eta zilegiak artikulatuko dituen gizarte indartsu, demokratiko eta parte hartzaile baten premiarekin loturik<sup>21</sup>. Milurteko berriaren hasi eta laguntzaren berregituratu zenetik, GLOen hartzaile diren herrialdeek -berreziki politika eta ekonomia egonkortasun urrien dutenek- jarraitu beharreko estatu kudeaketarako eredu egokienari lotu diote emaile handiek gobernantza; are gehiago, GLOak jasotzeko alde zureko baldintza ere bihurtu dute estatu kudeaketarako eredu horiek ezartzea.

### C. Partaidetza, ahalduntzea eta giza garapena

Orain arte, paradigma nagusiari atxikitako kontzeptu horien ikuspegi instrumentalak aztertu ditugu. Baina, gaitasunen ikuspegitik, beste ekarpen teoriko batzuk izan dira partaidetzari eta ahalduntzeari buruz, eta

<sup>19</sup> Partaidetzaren gatazka eta ahalduntzearen dimentsio politikoa desegin egin dira, eraginkortasunaren diskurtso teorikoen eraginez. Ez dira kontuan hartzen testuinguru sozio-kulturalak; eta partaidetzak eta ahalduntzeak mehatxu izateari utzi, eta aliatu bihurtu dira, ekimeneen kostuen parte handi bat kolektibo pobreei transferitzen dieten heinean, estatuak esku hartzeko esparru sozial eta ekonomikoa gero eta gehiago murrizten diharduten doitze politiken testuinguru honetan (Mohan eta Stokke, 2000:247; Villalba, 2008:302-303).

<sup>20</sup> Krisi ekonomikoa eta egiturazko doitze politikak zirela eta, eta diktadurapeko herrialde batzuetako emaitza ekonomiko positiboek bultzatuta, sektore batzuek adierazi zuten alderantzizko erlazioa zegoela demokraziaren eta hazkunde ekonomikoaren artean. Azken batean, gobernu ona eta erakundeek ongi funtzionatzea -demokratikoak izan nahiz ez- hartu zituzten egiturazko doitze politikak abian jartzeko ardatz.

<sup>21</sup> Horien artean, ordezkari-tza sistema, behar bezala diharduten alderdi politikoetan eta interes komuneko elkarteetan oinarritua; hauteskunde libre eta zilegiak nahiz sufragio unibertsala bermatuko dituen hauteskunde sistema bat; botere banaketan oinarrituriko kontrol sistema bat, botere judiziala eta legegilea independenteak direla bermatzeko; gizarte zibil dinamiko bat, Gobernuaren eta truke pribatuen gaineko ikuskaritza gauzatzeko gai izango dena eta partaidetza politikorako aukerak eskainiko dituen; komunikabide aske eta independenteak, eta gudarosteen eta beste segurtasun indar batzuen kontrol eraginkorra (GNBP, 2002).



baliagarriak gertatuko zaizkigu ikuspegi estu eta epe laburrera begirakotik harago jotzeko, eta giza garapenerako hain garrantzizkoak diren alderdi zentral hauen sendotze normatiboan aurrera egiteko.

### *GNDP eta giza askatasuna*

Nazio Batuen programa horrek hasieratik lagundu du ikuspegi hori garatzen, baina azpimarratzekoa da ez duela aurrerapen handirik egin garapenaren esparruan partaidetzaren ikuspegia sakontzeko. Partaidetza eta askatasun politikoak beti gelditu dira GNDPren ekarpenetan atzera samar, hasierako txostenetan izan ezik. 1991n eta 1992an, GNDP saiatu zen giza garapenari buruzko bere neurketetan askatasunen gaia txertatzeko; horretarako, Giza Askatasunen Indizea eta Askatasun Politikoen Indizea erabili zituen, partaidetza politikoa giza garapenaren funtsezko osagai gisa hartuta. Presio politikoen ondorioz, ordea, 1993ko txostenean erabaki zuten era horretako gaiak esparru akademikoan lantzekoak zirela batik bat (Eizaguirre eta Alberdi, 2001: 221-223). Nolanahi ere, 1993 eta 1995eko txostenetan agertzen da aipamenen bat giza garapenaren eta partaidetzaren arteko loturari buruz<sup>22</sup>. GNDPren harrezkeroko lanetan, partaidetza eta ahalduzko kontzeptuek ez dute inolako nagusitasunik izan agendan, eta, agertzen direnean, gobernagarritasun demokratikoaren ideari eta ordezkaritza partaidetzari loturik agertzen dira, talderik pobreentzako elementu baliagarri diren aldetik<sup>23</sup>.

### *Partaidetza, giza gaitasun eta eskubide gisa*

Akademiak partaidetzaren, demokraziaren eta giza garapenaren arteko loturetan sakondu du. Funtzionamenduaren eta gaitasunen kontzeptuez gainera, *eragiletza*<sup>24</sup> funtsezkoa da giza garapena ulertzeko, gure patuaren subjektu aktibo garen heinean, eta demokrazia da esparru publikoan gure eragiletza gauzatzeko dugun mekanismoa (Deneulin, 2008:186-191). Eta partaidetza politikoa eta erabaki demokratikoak hartzeko prozesua funtsezkoak dira gure patuan eragiteko. Hortaz, eskubidetza hartu behar dugu partaidetza, giza premia den heinean, eta ez edonolako giza premia, erradikalena baizik, hark optimizatzen baitu gainerako premiak gogobetetzeko bidea, zeharlerro modura (Doyal eta Gough, 1994:64; Max-Neef, 1986:31-35).

### *Demokraziak giza garapenean duen balioa*

Gaitasunen ikuspegiak demokraziari eta partaidetzari buruz biltzen dituen ideiak Dahlen demokraziaren ikuspegi klasikotik harago doaz<sup>25</sup>, eta autoritarismoari eta demokraziari eta horiek herrialdeen garapenean dituzten ondorioei buruzko eztabaidez harago. Demokrazia hauteskunde batzuetatik ateratako gehien-goko gobernu bat baino zerbait gehiago da, eta ibilbide luzeagoa izan behar du ordezkaritza demokraziak baino eta demokrazia molde horrek pertsonen ahotsaren oihartzuna hauteskunde garaiaz harago ere entzun dadin dituen mekanismo urriek baino. Pertsonak

<sup>22</sup> Azpimarratzekoak dira 1993ko txosteneko paragrafo batzuk, hala nola: «[...] funtsezkoa da erabakiak hartzeko eta botererako etengabeko irispidea izatea. Ildo horretatik, giza garapenaren funtsezko osagaia da partaidetza. [...] Giza garapenak aukerak zabaltzea esan nahi du, eta partaidetza areagotzek aukera ematen du jendeak aukera sorta askoz ere zabalagoa edukitzeko.» (GNDP, 1993:25). Aukerak zabaltzea, bereziki hiru esparru hauetan: edozein jarduera ekonomikotan erabateko askatasunez jarduteko gaitasuna; komunitateko bizitza molde guztietan esku hartzeko erabateko gaitasuna; eta gobernu hautatzeko eta aldatzeko askatasuna, maila guztietan, hurbileneko gobernutik hasi eta urrunenakora. 1995eko txostenak -giza garapenean emakume izateak zer esan nahi zuen aztertu zuen, eta Emakumearen Sustapen Indizea biltzen zuen (aurrerago, Generoaren Sustapen Indizea izena jarri zitzaion; gizonen eta emakumeen ahalduzko erlatiboa neurtzen zuen, partaidetza ekonomiko, politiko eta profesionalaren zerbait arlotan)- «pertsonen sustapena» aldarrikatu zuen, hau da, pertsonen garapen prozesuan parte hartzea eta garapenari onura ateratzea.

<sup>23</sup> Izan ere, 2002ko txostenak («Demokrazian sakontzea, mundu zatikatu batean») honela definitu zuen gobernagarritasun demokratikoa: «Oinarrizko printzipio eta balioen multzoa, pobreei aukera ematen diena partaidetzaren bidez boterea eskuratzeko eta, aldi berean, babes-tu egiten dituen gobernuak, enpresa multinazionalak eta beste indar batzuek ezartzen dizkieten ekintza arbitrario eta axolagabeetatik» (GNDP, 2002:vi).

<sup>24</sup> Gaitasunen ikuspuntua ulertzeko, honako kontzeptu hauek ulertu behar dira: funtzionamendua (jendeak zer izateari edo egiteari balioa ematen dion, arrazoituta), gaitasuna (pertsonen zerbait funtzionamenduz -beren ongizatearen mesederako gauzak izatea edo egitea- gozatzeko dituzten askatasunak) eta eragiletza (pertsona batek arrazoiz balioesten dituen helburuak betetzeko eta lortzeko duen trebetasuna) (Alkire eta Deneulin, 2008:23).

<sup>25</sup> Dahlen definizioa bost irizpidetan oinarritzen da (partaidetza eraginkorra, boto berdintasuna, ulermen ilustratua, agendaren kontrola eta pertsona heldu guztiak erabaki demokratikoetan txertatzea), eta demokraziaren funtzionamendua onartzeko beharrezko zazpi erakunde aipatzen ditu (kargu publiko hautetsiak; hauteskunde aske, inpartzial eta sarriak; herritartasun inklusiboa; kargu publikoetarako aurkezteko eskubidea; adierazpen askatasuna; informazio iturri alternatiboak; eta elkarten autonomia) (Deneulin, 2008:186-188).

beren garapenaren eragile izan daitezten, demokrazia-  
ren zentzua bera berraztertu beharra dago. Hala, gaitasunen eta giza garapenaren eskolak balio hirukoitza aitortzen dio demokraziari: berezko balioa (giza duintasunari atxikitako demokrazia)<sup>26</sup>, instrumentala (baztertutako taldeen inklusio politikoa, ezinezkoa baita arlo politikoaren eta ekonomikoaren artean dikotomiarik edo bereizketarik izatea), eta eraikitzailea (lehentasun politikoak finkatzeko oinarri izango den balio sistema eraikitzea) (Deneulin, 2008:191-196).

Berezko balioak adierazten du demokrazia giza duintasunaren funtsezko osagaia dela, eta partaidetza politikoak demokrazia berez desiragarri egiten du, gobernu era gisa eta jendeak bere burua goberna dezan. Tradizio kulturala gorabehera, demokrazia aintzat hartzen da, nahiz eta tradizio bakoitzak prozedura jakin batzuk balia ditzakeen partaidetza beharrei eta gaitasunari erantzuteko. Beste era batera esanda, ez dago partaidetza zertan gauzatu denboran eta espazioan beti modu berean, eta ez du zertan izan Mendebaldeko demokrazia liberalen arabera.

Gaitasunen ikuspegi horretatik, jendeak esparru publikoan bere kezka eta nahiak adierazteko tresna ere bada demokrazia, eta, hala, eskubide zibil eta politikoek bermea eskubide ekonomiko eta sozialekin uztartu behar da. Sen (1999:3-17) eta Drèze eta Sen (2002:347-357) egileek demokraziaren, partaidetzaren eta garapenaren balio unibertsalari buruz egindako lanetan, azpimarratu dute eskubide ekonomikoek eta politikoek elkarri estu lotuta egon beharko luketela; hori ikusita, zalantza sortzen da herrialde demokratiko askotan, adibidez Indian, nolatan egon daitekeen halako pobrezia eta berdintasunik eza<sup>27</sup>. Demokraziak herritarrentzako bizi baldintza hobekak dakartzen heinean, baztertutako taldeak politikan sartu beharko liriteke; izan ere, gutxieneko berdintasun materialik gabe, bidegabekeria eta berdintasunik eza areagotzea ekar dezakete erabakiek, formalki demokratikoak izan arren.

Eta ikuspegi horren arabera, demokraziak lagundu egiten du gizartea antolatzeke ardatz hartzen diren balioak eraikitzen. Demokraziek, baina baita beste erakunde batzuek ere -hala nola, publizitate industriak, hedabideek edo erlijio erakundeek-, ikur positiboko (tolerantzia, gizarte berdintasuna, talde behartsuenekiko solidaritatea...) edo ikur negatiboko (arrazakeria, xenofobia, bazterketa, indibidualismo berekoa...) balio kolektiboak eraikitzen dituzte (Deneulin, 2008:194-196). Demokrazia, beraz, espazio publikoan balioen eztabaida egiteko mekanismoa da, eta gobernu baten lehentasun politikoaren inguruan adostasuna eraikitzeke bidea ematen du.

### *Jardun demokratikoa eta giza garapena*

Kontua da nola gauzatu litekeen demokraziaren funtzionamendu egokia; alegia, nola lortu daitekeen demokraziak bere berezko balio nabarmentzea, pertsonen gaitasun politiko eta ekonomikoaren arteko lotura bermatzea, talde behartsuenen partaidetza aintzat hartzea eta gobernuaren jardura gizarte justiziara bideratzeko balio kolektibo egokiak eraikitzea. Gaitasunen ikuspegiak demokraziaren ideia hori gauzatzeko estrategiak proposatzen ditu, baztertutako taldeek erabakiak hartzen parte har dezaten sustatuz, demokraziaren alderdi deliberatiboa nabarmenduz eta hezkuntzarako aukera berdintasuna sustatzeko hezkuntza sistemak indartuz.

Demokrazian oinarrituriko giza garapenaren ikuspegi horren bidez, argi gelditzen da "*pertsona bat, boto bat*" printzipioa eta eskubide zibil eta politikoaren errespetua ez direla aski berdintasun politikoaren ezartzeko<sup>28</sup>. Baldintza politikoekin batera, baldintza ekonomikoek eta sozialek (hezkuntza mailak eta herriaren antolaketak mailak, tradizio politikoak, gizarte berdintasunik ezak...) ere badute zeresana berdintasun politikoan. Eskubide zibil eta politikoaren errespetua beharrezkoa da, baina jardun demokratikoari loturiko funtsezko eragileak dira, orobat, partaidetza politikoa hedatzea,

<sup>26</sup> Demokraziak liberala edo sozialista izan behar duen zehaztu gabe, hauxe da ikuspegi horretatik benetan garrantzia duena: pertsona guztiek berdintasuneko ordezkaritza izatea, erakunde demokratikoen bidez.

<sup>27</sup> Planteamendu honek zalantza jartzen du oinarrituriko premia batzuk sustatzeko aukerarik onena autoritarismoa dela dioten egile batzuen iritzia, demokraziaren balio instrumentala ukatzeak berekin baitakar demokrazia giza duintasunari atxikitako balioa dela ukatzea ere.

<sup>28</sup> Drèze eta Senek (2002) diote aukera politikoei buruzko informaziorik ezak edo gai publikoak ulertzeko hezkuntzarik ezak hutsaldu egiten dutela boto eskubidea, litekeena delako botoak ez adieraztea pertsonaren interesak. Indiari dagokionez, egile horiek ikusi zuten legebiltzarrean eztabaidatzen zituzten gaiak presio talde ahaltzuenen interesekin zutela lotura, eta ez oinarrituriko gizarte gaiekin.

prozesu publikoen ezagutza publikoa, oposizio politikoaren bizitasuna, oinarriko herri erakundeak, burokraziaren gaitasunik eza eta motibazio falta, eta kultura politikorik eza (Drèze eta Sen, 2002:347-352). Azken batean, egile horiek azpimarratu dutenez, boterea gauzatzeko sortzen den berdintasunik eza ekonomiako eta gizarteko berdintasunik ezaren ondorioa da.

Proposamen bikoitza egiten dute pribilegio sozialaren eta botere politikoaren gupil zoro hori gainditzeko, eta pribilegio gutxien dituzten taldeen botere politikoak sendotzeko. Alde batetik, talde horien autoafirmazioa sustatzea, pizgarriak eskainiz erakunde politikoak osatzeko, boterea eskuratu eta pribilegio gehien duten sektoreei aurre egin ahal izan diezaieten. Eta, bestetik, pribilegio gehien duten taldeen eta talde behartsuenen arteko solidaritatea sustatzea.

Proposamen horiek gauzatzeko, alderdi deliberatiboa sendotu beharko da maila guztietako erabakigune demokratikoetan,<sup>29</sup> eta sustatu egin beharko dira herritarren eta sektore baztertuen funtzionamendu politiko eraginkorrerako gaitasunak<sup>30</sup>. Bistan denez, ez da nahikoa herritar guztiak eztabaida politikoan txertatzea. *Pobrezia politikoa* gainditu beharra dago, eta, horretarako, ezinbestean beharko da hezkuntza sistema sendo bat, hezkuntzarako aukera berdintasu-

na bermatuko duena. Hezkuntza, beraz, ezinbesteko osagaia da demokrazia osasungarriarentzat.

### *Erabakiak hartzen parte hartzea eta giza garapena*

Giza gaitasunen eta, bereziki, gaitasun kolektiboaren gaineko gogoetari bultzada ematea eta gogoeta hori sustatzeko gakoak oso lagungarriak gertatzen ari dira 1980ko eta 1990eko hamarkadetako garapen proiektuetako partaidetza metodologiei egin izan zaizkien kritikak gainditzeko eta giza garapenerako esku-hartzeko sustatzeko proposamen metodologiko berriak egiteko. Gainera, proposamen horiek beste alderdi batzuk ere kontuan hartzen saiatzen dira, hala nola, gobernantzaaren eta garapenaren teorien ekarpen berrietatik eratorritako espazio publikoen eta pribatuen arteko loturak. Gaitasun kolektiboak definitzea funtsezkoa da giza garapenerako helburuak eta politikak finkatzeko; hala, erakunde batzuk, adibidez GNBK eta ECDPM, ahaleginak egiten ari dira ongizatea lortzeko prozesu kolektibo eta sozialak aztertze-ko, eta gaitasunak garatzeko estrategiak eta metodologiak lantzen ari dira hortik abiatuta<sup>31</sup>.

Metodologia horiei gehitu behar zaizkie gizartearen ongizatea lortzeko dinamiken ereduak aurkitzeko ahaleginak -*WellDev* programak proposatutako ongizate

<sup>29</sup> Demokrazia «eztabaida bidezko gobernua da», eta arrazoinamendu publikoa da prozesu demokratikoaren muina. Eztabaida publikoa gauzatzeko modua da gaitasunen ikuspegiak demokrazia deliberatiboaren teoriari egindako ekarpen nagusia, hain zuzen ere. Demokrazia «arrazoinamenduaren bidezko autogobernua» dela onartuz gero, berdintasun politikoaren ideiak lotura estua izango du berdintasun ekonomikoaren eta sozialarekin, ikuspegi ekonomiko eta sozialetik behartsuen diren pertsonen ez dutelako izaten, sarritan, herritar gisa parte hartzeko behar adinako motibaziorik eta konbentzitzeko trebetasunik (Deneulin, 2008:201-202).

<sup>30</sup> Bohmanen arabera (1996: 125), hauek dira funtzionamendu politiko eraginkorrerako trebetasunak: gai jakin bati buruzko elkarriketa publikoa hasteko edo proposamenak formulatzeko trebetasuna; argudioak eta kontrako argudioak emanez parte hartzeko gaitasuna; eztabaida kokatzeko trebetasuna; proposamenak bateratzeko bidea aurkitzea eta bat ez datozen ikuspuntuekin jardutea; eta manipulazioa jo gabe konbentzitzeko trebetasun erretorikoa.

<sup>31</sup> GNBK (UNDP, 2009: 4-7) metodologia propioa landu du, zeharkako gaitasun funtzionalen ideia oinarri hartuta. Ideia horren jatorrian gaitasun funtzional, zeharkako eta teknikoaren arteko bereizketa dago. Lehenengo bi gaitasun kolektibitate publiko edo pribatu orotan daude, edozein dela ere beren konplexutasuna edo jarduera esparrua, eta zerikusia dute proiektu, programa edo politiken identifikazio, jarraipen eta ebaluazioarekin. Gaitasun teknikoak, berriz, sektore profesionali edo jakintza sektoreei dagozkie (zergen kudeaketa, nekazaritza, hezkuntza...), interes instrumentalagoa dute eta gaitasun funtzionalen mendeko dira, horiek gabe ez bailirateke izango operatiboa. Bost motatako gaitasun funtzional zeharkakoak identifikatu dira, politikak, estrategiak, programak eta proiektuak formulatzeko, inplementatzeko eta ikuskatzeko: 1) elkarriketa abiatzea alde interesdunekin; 2) egoera aztertzea eta ikuspegi bat finkatzea; 3) politikak eta estrategiak formulatzea; 4) aurrekontuak egitea, kudeatzea eta inplementatzea; 5) kontrola eta ebaluazioa. Hala, GNBK metodologia bat ezarri du lankidetzaren proiektuetarako, baliagarria izan daitekeena garapen estrategietarako ere (UNDP, 2008:5-12); metodo horrek arreta berezia ematen dio bigarren gaitasunari, etorkizunari buruzko ikuspegi kolektibo bat sortzeko eta talde edo gizarte horrek lortu beharreko helburuak definitzeko funtsezkoa den heinean. ECDPMren lanen definizioen arabera (Baser eta Morgan, 2008:10), aldiz, sistemak edo organizazioak sistemaren barruan nahiz kanpoan funtzio edo prozesu jakin bat gauzatzeko duen trebetasuna da gaitasun kolektiboa. Egile horiek gaitasun hauek identifikatzen dituzte: 1) konpromisoa eta erakarpena; 2) zeregin edo eginkizun logistikoak betetzea eta zerbitzuak eta teknikak eskaintzea; 3) harremanak izatea, eta laguntza eta baliabideak eskuratzeko; 4) egokitzea eta berritzea; 5) koherentzia eta aniztasuna orekatzea. GNBK arreta prozeduretan jartzen badu ere, begi bistakoa da bi proposamenak antzekoak eta elkarren osagarriak direla (Dubois, Guridi, López Belloso, 2011:29-37).



erregimenen eredia, edo ongizatea lortzeko prozesuak-, baliagarriak izan baitaitezke TGG prozesuen analisirako esparrua osatzeko (Dubois, Guridi, López Belloso, 2011:40-52). Nabarmentzekoak dira Gough eta Woodek (2004:1-14) ongizateari buruz egindako lanak, ongizatearen ekoizpen iturrietan (estatua, merkata, komunitatea eta familia) eta horien arteko elkarrenginetan oinarrituak. Egile horiek matrize instituzional bat eraiki dute askotariko testuinguru sozial eta kulturaletan ongizatearen emaitzei eragiten dieten politikak eta praktikak aztertzeko, eta oso baliagarria gerta liteke pertsonak eta komunitateek beraiei dagozkien gaiak buruzko erabakietan duten partaidetzaren azterketan sakontzeko.

Antzeko bide batetik, azken bi hamarkadetan, batik bat partaidetzan oinarrituriko tokiko aurrekontuen eta herritarren partaidetza sustatzeko beste metodo batzuen arrakastari esker (Jubeto 2008: 5-9), eztabaida interesgarriak gertatu dira tokiko gobernantza demokratikoari loturik, edo, beste era batera esanda, tokiko gobernuak herritarren nahiekiko ardua handiagoa hartzeari eta zerbitzuak emateko eraginkortasun handiagoa izateari buruz. Administrazio eredu bakoitzeko herritarren partaidetza motak eta mailak garrantzizko elementutzat hartzen dira garapen prozesuetan, eta, beraz, aintzat hartzen dira eztabaidetan.

Akademiaren hainbat sektorek azpimarratu dute partaidetza prozesu guztiak ez direla positiboak, garapen eraldatzaileari dagokionez. Whitek (2001:161-163) bereizi egin zituen partaidetza nominala (formala soilik denean); instrumentala (kostu merkearekin emaitza bat lortzeko bitartekoa denean); ordezkariakoa (herritarrek beren interesak adierazteko bitarteko eraginkorra denean); eta eraldatzailea (partaidetza aldi berean denean emantzipaziorako bitartekoa eta helburua bere horretan). Ikuspegi instrumentalagotik<sup>32</sup>, herritarren partaidetza informazio truke soilera muga daiteke, edo herritarren kontsulta soil batera edo agintarien eta liderren arteko adostasunera; edo harago jo dezake, zerbitzuak elkarrekin kudeatzeraino edo koprodukzioa lortzeraino (Colino eta Del Pino, 2008: 264-273).

### *Partaidetzari buruzko ikuspegiak*

Partaidetza prozesuak garapen prozesuetan duten garrantziari buruzko atal kontzeptual hau amaitzeko, tokiko garapen prozesuei atxikitako partaidetza ikuspegi sailkapen bat proposatuko dugu.

Lehen ikuspegia *partaidetzazko* garapena izenda daiteke. MBk *partaidetzazko* garapena edo *pobreen mesederako* partaidetza aipatzen du. Interesa duten alde guztiek - bereziki pobreenek... proiektu eta programetan hitzartutako baliabideak diseinatzen, kontrolatzen, erabakitzen eta banatzen parte hartzean datza (Bhatnagar eta Willianms, 1992:1-13). Ikuspegi horrek arreta ematen dio partaidetzaren eta gobernu onaren arteko loturari; hau da, eragile publiko eta pribatu guztien arteko elkarrenginari (administrazioaren maila guztiak, GKEak, tokiko agintariak eta kolektibo baztertuak, emakumeak, herri indigenak eta pertsona behartsuak), tokiko garapenerako proiektuetan, eta partaidetzatik eratorritako kostu ekonomiko eta etekinei.

Bigarren ikuspegia gobernantza demokratikoa da. GNBK partaidetza inklusiboa sustatzeaz mintzo da; horixe da gobernagarritasun demokratikoko estrategiaren hiru lan esparruetako bat, erakunde ebazleak sendotzearekin eta nazioarteko printzipioetan oinarrituriko gobernagarritasun demokratikoarekin batera. Demokraziak bide eraginkorrak behar ditu partaidetza hau sustatzeko: herritar bakoitzak hauteskunde libre eta justuetan botoa emateko, esparru publikoan parte hartzeko, eta alderdi politiko, erakunde sozial komunitario eta boluntariotzaren bidez bere interesak aldarrikatzeko bidea emango duten bitartekoak. Bitarteko edo bide horiei esker, beren eskakizunak artikulatu, funtzionario publikoei presioa egin eta gobernu hautetsiak beren ekintzen gaineko erantzukizunak hartzera bultzatzea ditzakete pertsonak. Partaidetza inklusiboa eta tokiko nahiz nazioko konpromiso zibikoa sustatzea da gakoa, eta eginkizun adierazgarria aitortzea ordezkariak gutxieneko taldeei, hala nola, behartsu, emakume eta gutxiengoei (GNBP, 2010:19-20).

Eta hirugarren ikuspegia, azkenik, eraldaketarena eta harremanena da. Eraldaketa partaidetza (Hickey eta

<sup>32</sup> Antzeko beste sailkapen batzuek honako bereizketa hauek egiten dituzte: herritar-bezeroen partaidetza metodoak; kontsulta metodo berrietan oinarrituriko zuzeneko demokraziako metodoak; metodo deliberatiboak, banakako nahiz taldekako elkarrengin oinarrituak; eta herritarrek kudeaketan eta erabakiak hartzean zuzenean parte hartzekoak. Baita tokiko administrazio ereduak ere, burokratikoak, kudeaketakoak edo erlaziozkoak, hain zuzen (Alguacil, 2005:8-9).

Mohan, 2005:26-28) eta harreman partaidetza (Alguacil, 2005:4-8) askoz ere politikoagoak eta erradikalagoak dira kontzeptu honi dagokionez. Lehen kasuan, egile horiek eraldaketa partaidetza proposatzen dute, partaidetza garapenaren orde, paternalismoa edo ongizate unibertsalista saihesteko. Ez da ulertu behar tokiko bizi-moduen gorespen modura, baizik eta deszentralizazio politikoaren bidez komunitateak ahalduz gisa, gizarte aldaketako prozesuekin, herritarren eskubideekin eta talde baztertu eta mendekoen partaidetzarekin loturik. Bigarren kasuan, berriz, tokiko gobernu mailentzako erlaziozko estrategia bat da partaidetza, ezinbesteko jotzen duena tokiko aginte formalen eta gizarte erakundeen arteko aliantza sendotzea, eredu sozioekonomiko justiziaren bidera eramateko, administrazioaren eta gizartearen egiturak eta indarrean dagoen kultura politikoa aldatzeko, erlaziozko eredu batean oinarrituriko politika publikoen kudeaketarako tipo *ideal*/baten bidez.

Partaidetzaren ikuspegiaren sailkapen horrekin, agerian utzi nahi da partaidetzak garapen prozesuen alderdi gisa duen garrantziari aldatu egin daitekeela garapenaren eta lankidetzaren eragilean arabera. Aurrerago jardungo dugu gai horretaz berriro.

### 2.3. Genero ikuspegia, giza eskubideak eta giza garapena gauzatzeko funtsezko osagai gisa

#### A. Definizioa

Generoa: kontzeptu hau teoria feministan garatu zen, 1970eko hamarkadaren hasieran<sup>33</sup>, sexu desberdintasunaren eraikuntza sozialari aipamena eginez. Harrezkero erabili izan da sexuaren eta generoaren arteko bereizketa hori, eta gaur egun ere erabiltzen da, emakumeen eta

gizonen arteko berdintasunik ezelako egoera aldatzeko estrategia berriak definitzeko eta ikertzeko tresna gisa. Talde horien jardunetik eta ikerketatik zenbait kontzeptu sortu dira, oinarri-oinarrizkoak emakumeen eta gizonen arteko erlazioak aldatzeko (sexu-genero sistemak, genero identitatea...); nolahi ere, garrantzi gehien duten alderdietako bat emakumeen eta gizonen arteko botere harremanak agerian uztea eta kolokan jartzea da. 1985ean, horri buruzko gogoeta egin zen, garapenaren eta lankidetzaren esparruari loturik, Emakumeen Nazioarteko III. Konferentzian<sup>34</sup>.

Generoa garapenean: zenbait egilek landu dute ikuspegi hau<sup>35</sup>, baita mugimendu feministek ere, herrialde behartsuetan genero berdintasuna eta ekitatea bermatzeko, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunik gabeko erlazioen azterketa txertatuz testuinguruetan eta garapen prozesuen genero plangintzetan. Helburua hau da: bidezko eta berdintasunezko erlazioak eraikitze politikoa eta prozesu eraldatzaileak definitzea. Ikuspegi hori garatzeko, emakumeen ahalduzko estrategiak eta lankidetzaren ziklo osoan genero ikuspegia zeharkako ildo bihurtzeko estrategiak behar dira.

#### B. Bilakaera

1950eko hamarkadatik aurrera, emakumei begirako askotariko ekintzak abian jarri zituzten lankidetzan eta garapenean. Guztiak ere indarrean zeuden eredu ekonomikoei lotuak ziren, batik bat gobernu agentziek eta nazioarteko erakundeek sustatutako garapen ereduak lotuak. Ongizatearen ikuspegiak ekin zion emakumeei lanari<sup>36</sup>, 1950eko eta 1960ko hamarkadetan; eta gaur egun ere indarrean jarraitzen du. Lan horren xedea zen emakumeak garapenean txertatzea; baina,

<sup>33</sup> Ann Oakley soziologo feminista ingelesak 1972an erabili zuen kontzeptu hori, sextik bereizita: «Sexua biologiko hitza da; generoa, berriz, psikologian erabiltzen da, kultura prozesuez jarduteko. [...] Gizona edo emakumea izatea, mutikoa edo neskatoa izatea, ez da norberaren organo genitalen araberrako zerbait soilik; janzkerak, keinuek, jarduerak, gizarte sarea eta nortasunak ere badute horretan zer esanik» (Oakley 1972:158).

<sup>34</sup> III. Konferentzian, garatzeko bidean zeuden herrialdeetako ordezkariak zalantzan jarri zuten ordura arte emakumei garapenean ematen zitzaion ikuspegia, eta zera aldarrikatu zuten: «Paradigma alternatibo bat sustatzea, emakumeen arazoak ez daitezen hartu arazo bakartu gisa, baizik eta gizartearen barruan mendeko eta baztertu rolean ezartzen dituen "genero sistema" baten emaitza gisa» (Rigat-Pflaum, 2008:42). Zehatzago, Hegoaldeko emakumeen DAWN sarea dokumentu bat aurkeztu zuen, emakumeen ahalduzkoa aldarrikatzen eta sexuen arteko botere harremanak agerian uzten zituena, eta patriarkatua jotzen zuena berdintasunik ezaren egiturazko kausa.

<sup>35</sup> Ikus hurrengo atala, kontzeptu honen gaineko ikuspegiaren bilakaerari eta definizioei buruz Hegoaren Ekintza Humanitarioko hiztegiaren Clara Murguialday egindako lanari buruzkoa (2000).

<sup>36</sup> Ikuspegi horiek ez dira iragazkaitzak, ez denboran ez forman; izan ere, ez da eredu pururik izaten, oro har, eta, dokumentu honetan denborazko hurrenkera bat aipatzen den arren, ikuspegi horiek batera agertu izan dira denboran eta batera jarraitu izan dute indarrean; are gehiago, gaur egun ere, badira teoriarik «gaindituta» dauden eredu horietako batzuen adibideak.

praktikan, elikagaiak emateari, elikadura hezkuntzari eta familia plangintzari erreparatzen zieten programa gehienek. Emakumeekin, beraz, asistentzian oinarrituriko lankidetzak sustatzen zen, batik bat; eta gizonekin, aldiz, azpiegiturak sortzeko proiektuak. Emakumeak hartzaile pasiboak ziren, eta talde ahula; haurtzaroari eta hirugarren adinari lotuta zeuden; eta bigarren zeregina zuten beti, bai ekonomian bai garapen prozesuetan, oro har. Hala, emakumeen tradiziozko rolak errepikatzen ziren, eta haien doako lana baliatzen zen, sexuen araberako lan banaketa sendotzeaz gainera<sup>37</sup>.

1970eko hamarkadan, mugimendu feministak indarra hartu zuen Europan eta AEBn, eta emakumeak garapen prozesuetan ikusgarri egiteko ikerketa eta sakaketa lan handia egin zen -Ester Boserupek, besteak beste (Zabala, 2010:4)-. Horri guztiari esker, NBk Emakumearen Nazioarteko Urte izendatu zuen 1975. urtea, eta Emakumeen Nazioarteko I. Konferentzia antolatu zuen Mexikon, gogoeta sustatzeko eta estrategia nazional nahiz nazioartekoak definitzeko<sup>38</sup>. Testuinguru horretan sortu zen Emakumea Garapenean ikuspegia (EG); ikuspegi horren xede nagusia zen agerian uztea emakumeek garapenaren esparruan zuten egoera eta rola, eta ekoizpenean modu aktiboan parte har zezaten sustatzea, bai etxean bai etxetik kanpo. Horretarako, sendotu egin zen ikerketa, eta emakumeei ekoizpenera iristeko aukera emateko proiektuak abian jarri zituzten (gaitzea, kreditua...). Ikuspegi hori inplementatzeko, hiru estrategia hauek finkatu ziren: berdintasuna, pobreziari aurre egitea eta eraginkortasuna.

Berdintasunaren estrategia da eraldatzaileena, ikuspegi honen barruan; izan ere, patriarkatua jotzen du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik ezaren errudun, eta horri aurre egiteko botere egituren erforma proposatzen du, eta aukera berdintasunerako programak, esparru publikoan nahiz pribatuan. Estrategia horrek, emakumeen jarrerari dagokionez, diru inbertsio handiak eta errotiko aldaketa politikoa eskatzen zien gobernuari eta lankidetzak agentzietara;

horregatik, pobreziaren kontrako estrategiari heldu zitoten, hari heldu ordez.

Pobreziaren kontrako estrategiek eta eraginkortasunaren estrategiek ezaugarri hauek dituzte: emakumeen homogeneizazioa eta instrumentalizazioa, genero berdintasunik ezari eustea eta ez zalantzan jartzea sexuen arteko berdintasunik ezelako botere harremanak eta horien egiturazko arazoak. Eraginkortasunaren strategiaren xedea da emakumeen partaidetza ekonomikoa hobetzekoa, eta, beraz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneranzko bidean aurrera egitea, emakumeen egoera hobetzeak pobrezia murrizten eta garapena lortzen lagunduko duelakoan. Genero-berdintasuna, beraz, ez da xedetzat hartzen bere horretan. Estrategia horrek emakumeentzako ekoizpen proiektuak proposatzen ditu, eta bide horretatik etekina ateratzen dio emakumeek egindako doako lanari eta hura komunitatean erabiltzeari. Eraginkortasunaren strategiari genero berdintasunik eza eraldatzeko gaitasunik ez duelako egin zaizkion kritikak eta ildo horretatik eman diren argudioak gorabehera, gaur egun oraindik asko erabiltzen dute estrategia hori alde anitzeko organismoek, lankidetzak agentziek eta GGKEek.

Naila Kabeer ekonomistaren arabera (1994:25), EG ikuspegi horretan egiten den emakumeen instrumentalizazioak (batez ere eraginkortasunaren estrategietan eta pobreziaren kontrakoetan) agerian utzi zuen «arazoa ez zela emakumeek garapena behar izatea, baizik eta garapenak emakumeak behar izatea». Labur esanda, ikuspegi horrek emakumeak garapenean txertatu zituen, baina garapen prozesuetako erabakietan parte hartzeko aukerarik eman gabe, haien interes estrategikoak kontuan hartu gabe eta gizonen buruz bigarren mailan utzita.

Lehen esan bezala, 1980ko hamarkadaren erdialdera, eta batik bat Nairobini egin zuten Emakumeen Nazioarteko III. Konferentzian, entzun ziren nazioartean mugimendu feministak garapenari loturik botere

<sup>37</sup> Hori guztia argi laburtzen du Caroline Moser ingeles antropologoak (Moser, 1991:26), ikuspegi honen oinarri gisa planteatu zituen hiru ardatzen bidez: «Lehenik eta behin, emakumeak garapenaren hartzaile pasiboak dira, partaide baino gehiago. Bigarrenik, amatasuna da emakumearen funtsezko rola. Eta hirugarrenik, haurrak haztea eta zaintzea da emakumeek garapen ekonomikoa gauza dezakeen jardueraren nagusia, eraginkortasunari dagokionez».

<sup>38</sup> Konferentzia hark argi erakutsi zuen berdintasunik eza mota askotakoa izan daitekeela eta gai konplexua dela; era berean, zehaztu zuten urte hura izango zela NBren Berdintasunaren eta Garapenaren gaineko Hamarkadako (1975 - 1985) lehen. Aldi berean, bitarteko konferentzia eta amaierako konferentzia eta prestatu zituzten, jarraipena egiteko eta hamarkada horretan lortutako emaitzak ebaluatzeko.

harremani eta sexua-generoa sistemari buruz egindako gogoetak, eta Generoa Garapenean ikuspegia sortu zen (GG). Ikuspegi alternatibo bat da, genero sistemaren testuinguruan kokatua eta berdintasunik ezaren eragilea patriarkatua dela dioena<sup>39</sup>.

### C. Generoa eta Tokiko Giza Garapena

TGGari buruz aurreko ataletan esandakoari jarraituz, gaitasunen ikuspegia funtsezkoa izan da kontzeptu hauek garatzeko eta garapen lankidetzan txertatzeko. Genero-ekitateari erreparatuta, ikuspegi honek gaitasunak egin ditu garapen eredu ekonomizistak edo funtsezko premietan soilik oinarritutakoak, eta genero berdintasunik eza eraldatzeko behar-beharrezko elementuak aldarrikatu ditu, hala nola, askatasuna, eragiletza eta parte hartzeko eskubidea<sup>40</sup>. Generoa Garapenean ikuspegiaren eta gaitasunen ikuspegiaren arteko lotura hori landu duten egileen artean, bereziki aipatzekoa da Martha Nussbaum (2002); egile horrek, giza garapen nagusiak identifikatzeko ahaleginean, azpimarratu du gaitasun horiek funtsezkoak direla sozialki justuagoak izango diren eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna aintzat hartuko dituzten politika batzuk formulatzeko.

Urte batzuk lehenago, GNBPK berak, bere GGIaren bidez giza garapenaren ideiak gauzatzeko ahaleginean, abian jarri ditu generoak giza garapenean duen tartea

neurtzeko bitarteko espezifiko batzuk, hala nola, Generoari Buruzko Garapenaren Indizea (GBGI) eta Generoaren Sustapen Indizea (GSI)<sup>41</sup>. Indize horietan, garrantzikoena da emakumeak sendotzea dela helburuetako bat, eta agerian uzten dutela emakumeek eta gizonen ez dutela aukera berdintasunik gizariketan. Indize horiek erabilita urte urte egindako neurketen bidez, generoari eta generoa sendotzeari buruz zer aurreapen eta atzerapen izan diren ikusi ahal izan da. Hala ere, generoari ez zaio behar adinako nabarmentasunik eman giza garapenean, GNBPre hurrengo txostenetan, eta oraindik asko sakondu beharko da generoekin eta giza gaitasunekin loturiko erronketan, eta hobetu egin beharko dira generoak giza garapenean duen nabarmentasuna neurtzeko indizeak<sup>42</sup>.

Giza garapenaren ideien bilakaera (TGGa barne) Generoa Garapenean (GG) ikuspegiaren progresioari lotuta dago. Ikuspegi hori 1990eko hamarkadan garatu da, eta emakumeen ahalduntze estrategietan eta generoaren zeharkakotasunean zehaztu da, gaitasunen ikuspegiari buruzko pentsamenduan zalantzarik gabe garrantzi handikoak biak<sup>43</sup>. Hortaz, giza garapena eta tokiko giza garapena GG ikuspegiarekin estu lotuta daude, oinarri politiko eta metodologiko askotan bat datozen heinean, eta indibidualtasunetik kolektibotasunera eraldaketa erreala bideratzeko gako gisa hartzen baitituzte partaidetza prozesuak. Azterlan honetan,

<sup>39</sup> Une batzuetan GG eta EG ikuspegiaren txertatutako berdintasun estrategiak bat datozela pentsa litekeen arren, elkarren nahiko desberdina da, Idoe Zabalak planteatzen duen moduan (2010:9). EG ikuspegia mugimendu feministatik sortu zen, GG bezalaxe, eta biek ematen diete arreta emakumeen interes estrategikoei; baina GG ikuspegiak zalantza jartzen du garapenak gizon guztiei onura bera dakarkienik, eta emakume guztiek, aniztasun handia izan arren, zapalkuntza molde bera bizi dutenik edo Mendebaldekoaren garapen eredu baten aldeko apustua egiten dutenik.

<sup>40</sup> «Giza garapena garapenaren paradigma gisa agertzeak aldaketa handia dakar emakumeek garapenean bete beharreko eginkizunaren eztabaidara, eta aukera berriak planteatzen ditu genero harremanak aldatzeko, eskubideen esparrutik, eta genero ikuspegia politika eta programetan txertatzeko» (Cruz, 2007:22).

<sup>41</sup> Indize horiek 1995eko «Sexuen berdintasuneranzko iraultza» GG txostenean txertatu ziren. GBGIak bildu egin zituen herrialde bakoitzak GGIaren arloetan egindako lorpenak, eta txertatu zituen lorpen horiei buruz herrialdeetan zegoen genero berdintasunik ezaren maila. Zenbat eta alde handiagoa egon herrialde batean gai horietan, are apalagoa da GBGIa, haren GGIarekin alderatuta. Bestalde, GSIak aztertzen du gizonak eta emakumeak bizitza ekonomikoan eta politikoan eta norberaren herrialdeko erabakietan eta parte hartzeko moduan dauden. Horretarako, zenbait aldagai aztertzen ditu, emakumeengan eta gizonengan: per capita diru sarrerak, enplegu profesional edo tekniko deritzenetan eta administratibo eta exekutiboetan dituzten zenbatekoak; eta legebiltzarreko eserlekuen proportzioa (Cruz, 2007).

<sup>42</sup> Carmen Cruzen arabera (2007), giza garapenaren paradigmak generoari buruzko erronka hauei erantzun behar die, nagusiki: 1) Giza garapenean, genero ikuspegiaren eta giza eskubideen artikulazioa sustatzeko premia, justiziaren ideiarri begira; 2) Gobernagarritasun globala definitzea, gaur egungo erakundeak aldatzea eta giza garapenaren ikuspegia sustatzeko proposak izan daitezkeen egitura global berriak sortzea barne; 3) Ikuspegiaren balizko instrumentalizaziorik gerta ez dadin zaintzea; 4) Ekoizpenaren eta ugalketaren esparruak lanaren kontzeptualizazioan eta neurketan txertatzea; 5) Askatasunaren kontzeptua zehaztea. Haren ustez, interesgarria litzateke teoria eta praktika feministei heltzea berriro -bereziki, ekonomia feministaren teoria eta praktikari- adierazle horiek hobetzeko eta gaur egungo beste tresna batzuekin uztartzeko, MGHekin esaterako.

<sup>43</sup> Ahalduntze estrategiek nahiz zeharkakotasunak, bizitzako esparru guztiak biltzeaz gainera (politikoa, ekonomikoa eta soziokulturala), azaleratu egiten dituzte boterea emakumeen eta gizonen artean birbanatzearekin loturiko alderdi estrategikoak: sexu eta ugalketa eskubideak, autonomia ekonomikoa, maila guztietako partaidetza politikoa, fundamentalismoen kontrako eta estatu laikoaren aldeko borroka, etab.



arreta bereziz aztertu nahi dugu partaidetza politikoaren birbanaketa, generoaren ikuspegitik, bai politika formal antolatuan bai gizarte espazio eta mugimenduetan.

Giza garapenean eta GG ikuspegiaren, funtsezkoa da emakumeen mugimendua eta mugimendu feminista protagonistak izatea, haiek sendotzea eta parte hartzea, funtsezko subjektu politikoak baitira emakumeen eskubideak aitortzeko prozesuetan eta emakumeen eta gizonen artean erlazio berriak sortzeko alternatiben eraikuntzan. Partaidetza hori -eraldatzailea, ez tutoretzapekoa- boterearen eraikuntza prozesu guztietan bideratu behar da, maila guztietan -hasi tokiko esparrutik eta nazioartera-, eta, bereziki, garapenerako agenda berrien eraikuntzan<sup>44</sup>.

Zehatzago esanda, tokiko esparruko politika formal antolatuan, etxea, komunitatea eta tokiko gobernua aztertu behar ditugu, eta estrategiak planteatu behar ditugu egitura horietako bakoitzean berdintasunik eza gainditzeko; estrategia horiek gaur egungo egiturak aldatzea planteatzea dezakete (kuota sistemak, ekintza positiboko politikak eta programak, partaidetzarako baliabideen eskuragarritasuna...), edo baita partaidetzari tarte handiagoa egingo dioten egitura demokratiko berriak sortzea ere. Edonola ere, neurri horiek kultura politikoan aldatzeko eta egitura ekonomikoetan eta merkatukoetan eragiteko premiarekin uztartuta daude.

Aipatu ditugun partaidetza gune guztietan aurre egin behar zaie emakumeen partaidetza eragozten duten oztopoi, honako hauei besteak beste: pobrezia, bazterketa

politikak, emakumeek etxeko lanetan neurritz gaindiko izatea, generoaren arabera rolak eta balio tradizionalak, segurtasuna aitzakia hartuta askatasun zibilak murrizten dituzten erregimenak eta genero arrazoiengatik indarkeria (Demetriades, 2009:7).

Berriro GG ikuspegiaren estrategiei helduta, ahalduntzearen kontzeptuak<sup>45</sup> prozesu bat adierazten du, prozesu konplexu eta epe luzera begirakoa, kontuan hartzen dituen berdintasunik eza eta emakumeek jasaten dituzten zapalkuntza motak, beren klasearen, etniaren, historiaren eta nazioarteko ordena ekonomikoaren barruan duten posizioaren arabera (Zabala, 2005:47). Ahalduntzeak hiru alderdi biltzen ditu: pertsonala, hurbileko harremanena eta kolektiboa<sup>46</sup>, hirurak ere berdintasunik ezaz jabetzeari, beste emakume batzuekiko elkarlanari eta, gerora, genero-berdintasunik eza eraldatzeko aukera emango duen ahalduntze politikoari atxikiak. Boterearen ikuspegi horren arabera, botereaz jabetzeak du garrantzia, eta ez, hainbeste, boterea zer mailatan edukitzen edo gauzatzen den. Kontzeptu konplexua da, eta subjektuaren beraren partaidetza aktiboren premia du<sup>47</sup>.

Puntu honetan, ahalduntzearen kontzeptuak lotura du giza garapenerako eragiletzaren ideiarekin. Giza garapenerako eragiletza kontzeptualizatzen du, aitortuz gizakiak ez direla pasiboak garapenean, eta garrantzizkoa dela norberak giza garapeneraren helburuetan parte hartzea. Eragiletzaren ikuspegi horren arabera, giza garapena hurbil dago emakumeen ahalduntzearen kontzeptuetatik, kontzeptu horiek emakumeen gaitasunak eta eragiletza areagotzeari baitagozkio. Hala ere, badira

<sup>44</sup> María Teresa Blandónek dioenez: «Ezin defini daiteke garapena, emakumeok bizi ditugun askotariko errealitateen berri izan gabe eta horiek lotura enpatikoak eratu gabe. Behar duguna ez da babesa, baizik eta baliabideak: estatuaren, lankidetzaren eta beste gizarte eragile batzuen aurrean benetako solaskide izateko aukera emango diguten baliabideak, gure gizarteek behar duten garapen eredia definitzen parte hartzeko. Elkarreragina da emakumeok behar duguna» (Torrecilla, 2010:9).

<sup>45</sup> Kate Young antropologoaren hitzetan (1997:104-105): «Emakumeak mendeko genero bihurtzen dituen posizioa erreproduzitzen duten prozesu eta egituren erroto aldaketa bilatzen du. [...] Teorialari eta aktibista feministek onartu egiten dute, eta, are gehiago, azpimarratu egiten dute aniztasuna, baina orobat diote emakumeek badutela zapalkuntzako eta mendekotasuneko esperientzia komun bat, zapalkuntzak eta mendekotasunak edozein molde harturik ere». Egile berak nabarmendu duenez, eraldaketarako potentzialak ahalmena du premia praktikoa bat premia estrategikoa bihurtzeko eta partaidetzarako garapen prozesu bat ahalduntze kolektiborako osagai bihurtzeko, eta eraldaketarako potentzial hori funtsezkoa da emakumeen eta gizonen arteko erlazio bidezkoagoak finkatzeari begirako ahalduntzea garatzeko.

<sup>46</sup> Hauek dira ahalduntzearen osagaiak: a) Pertsonala: izatearen zentzua, autokonfiantza eta gaitasunak garatzea; b) Hurbileko erlazioak: arlo horretan negoziatzeko eta erabakiak hartzeko trebetasuna garatzea; c) Kolektiboa: elkarrekin lan egitea, egitura politikoetan gehiago eragiteko edo ekintza eredu kolektiboa finkatzeko. Alderdi honetan, berezi egin behar dira tokiko maila/informala eta nazioarteko maila/formala.

<sup>47</sup> Lau botere mota bereizten dira: *zerbaiten gainetiko boterea*, *barrutik gauzatutako boterea*, *zerbaiten bidez gauzatzen den boterea* eta *zerbaiterako boterea* (Rowlands, 1997:218-223). Azken hiru motak, *zerbaiten gaineko boterea* ez bezala, positiboak dira eta boterea ulertzeko modu edo ikuspegi berri bat adierazten dute, botere partekatua eta gizarte harreman berriak sortzearen bidetik. Hala ere, botere bana-keta eskatzen duten genero-ekitaterako aldarrikapenei dagokienez, erresistentzia handiak aurkituko ditu zero baturaren botere aldarrikapenak (Razavi eta Miller, 2005:6).

desberdintasunak, emakumeen ahalduntzeak, estrategia gisa, ez duelako bide bera egiten eskubideen ikuspegitik eta emakume taldeen ikuspegitik; eta, gaitasunen ikuspegia askatasunean oinarritua denez eta ahalduntzearen boterearen alderdiak nabarmentzen dituenez, emakume taldeen kasuan, komeni da baliabideei buruz eta horien funtzionamenduari buruz jardutea, botere erlazioen esparruaz aritzean (De la Cruz, 2007).

Azken urteetan, kritika ugari egin izan dira estrategia honen interpretazio edo aplikazio okerrak direla eta (Young, 1997:106; Zabala, 2005:47):

- I. Ahalduntzea goitik behera edo kanpotik bideratzeko moduko prozesu gisa planteatu da, ahaztuta zein garrantzizkoa den partaidetza prozesuak sortu eta pertsonak protagonista izatea eta prozesuak berak gaitasunak sortzea.
- II. Orokortu egin da *emakumeen* kontua delako ideia, zalantzan jarri gabe ez gaur egungo egiturak ez emakumeen eta gizonen arteko erlazioak, ezta gizonen kolektibo gisa duten eginkizuna eta erantzukizuna ere.
- III. Sinplifikatu egin da ahalduntze prozesua, alderdi indibiduallean arreta jarritz, alderdi kolektiboa baztertuta. Zehazki, enpresa arloko autokonfiantzarekin eta pertsonen ekintzailtza sustatzen duten beste ideia batzuekin lotu izan da ahalduntzea, eta horrek ahalduntzearen ikuspegi neoliberalaren hegemonia dakar; alegia, balio indibidualistetan oinarritutako eta ahalduntzeari (erlazio hurbileko eta kolektiboak) eta ahalduntzearen eraldaketa potentzialari behar adinako arretarik ematen ez dien ikuspegia.

Esan dugunez, GG ikuspegiaren estrategia nagusia genero ikuspegiaren zeharkakotasuna<sup>48</sup> edo genero *mainstreaming* da; berdintasunaren auziak erakunde egitura ororen erabaki politikoen muinean ezartzearen aldeko apustua egiten du, baita erabaki horien ondorioz baliabideak esleitzean ere. Ikuspegi hori berriaz bere egin

zuen Emakumeen Nazioarteko IV. Konferentzian onartutako Pekingo Adierazpenak eta Ekintza Plataformak (1995); hain zuzen ere, haren helburu estrategikoak zehaztu zituzten, baita gobernuek, nazioarteko komunitateak, GKEek eta sektore pribatuak hartu beharreko neurriak ere, betiere, emakumeen aurrerapena eragozten zuten oztopoak gaintzeari begira. Kontzeptu horri buruz, gako batzuk nabarmentzea komeni da:

- I. Zeharkakotasuna ez da helburua bere horretan, genero-berdintasuna lortzeko bitartekoa baizik.
- II. Ez dagokie emakumei soilik; gizonei, botere harremani eta egitura politiko, ekonomiko eta soziokulturalei ere badagokie.
- III. Ez ditu ordezkatu behar genero-berdintasun eta ahalduntze politika espezifikoak; haien osagarri da.
- IV. Berdintasunik ezaren sakoneko arrazoiak aztertzea eta egiturazko aldaketak bultzatzea dakar.
- V. Prozesu politikoa da, teknikoak ez ezik; horregatik, estrategia honek arrakasta izan dezan, ezinbestekoa da eragileek borondate politiko argia eta erabakia izatea.

Zeharkakotasuna orain dela bi hamarkada baino gehiago definitu zuten, eta, harrezkero, azterketa ugari egin dira haren aplikazioari buruz. Genero ikuspegia lankidetzeta eta garapen politiketan txertatzeari dagokionez, politika horien arteko bereizketa hauxe egin nahi dugu: generoari dagokionez itsu diren politikak, hau da, berdintasunik eza aitortzen ez dutenak eta emakumeek garapenean duten zeregina erreproduzitzen eta deuseztatzen dutenak; eta generoaz ohartzen diren politikak, hau da, berdintasunik ezaz jabetzen direnak eta emakumeak nahiz gizonak hartzen dituztenak garapenerako eragileztat (Kabeer, 1994)<sup>49</sup>.

Gaur egun, garapenerako prozesu eta proiektu gehienetan biltzen dira nola edo hala genero ikuspegia txertatzeari buruzko aipamenak, baina gai hori nola hartzen den, emaitzak askotarikoak izan daitezke, prozesuan bertan nahiz ondorioetan. Generoa aintzat

<sup>48</sup> Hau da gehien erabiltzen den definizioetako bat: «Genero *mainstreaming* da neurri politikoak hartu ohi dituzten eragileek genero-ekitatearen ikuspegia txertatzea politika guztietan, maila guztietan eta etapa guztietan, politikak antolatzean (berrantolatzean), hobetzean, garatzean eta ebaluatzean» (Europako Kontseilua, 1999:26).

<sup>49</sup> Generoari buruz itsu diren politikak: genero berdintasunik eza kontuan ez hartzeaz gainera, berdintasunik eza erreproduzitzen eta emakumeak garapenaren onuretatik at uzten dituztenak. Generoa kontuan hartzen duten politikak: emakumeak nahiz gizonak dituzte garapenerako eragileztat, eta ohartzen dira ez dagoela berdintasunik, baita emakumeek eta gizonen interes eta premia desberdinak dituztela ere. Egile honek bereizketa hau egiten du generoa kontuan hartzen duten politiken barruan: naturalak, espezifikoak eta birbanaketakoak, generoari buruz duten eraldaketa potentzialaren arabera (Kabeer, 1994).

hartzten duten politiken artean ere askotariko helburuak eta ekintzak ikusten dira: batzuk emakumeentzako espezifikoak dira; beste batzuk, premia praktikoak betetzera begirakoak, etab. Nolanahi ere, gutxi dira berdintasunik ezaren egiturazko arazoien azterketa egiten dutenak, eta, ondorioz, errealitatea eraldatzeko neurriak planteatzen dutenak.

Aurrerapausoak egin dira, noski; baina gaur egungo erronka nagusia da aztertzea zergatik dauden halako gabeziak ahalduntze estrategiak eta generoaren zeharkotasun estrategiak aplikatzean. Horren gako nagu-

sietako bat da arazoa ezkutatu egiten dela generoaren diskurtsoari buruzko adostasunaren eraginez; horren ondorioz, oposizio patriarkaleko ezkutuko agenda bat sortu da, eta ezinbestekoa da hori agerian uztea, ulertzea eta aztertzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egin nahi badugu (Lowngwe, 1997:148-149).





### 3. Autonomia erkidegoen lankidetza politiken azterketa, partaidetzaren eta genero-ekitatearen ikuspegitik

Atal honetan, balantze orokorra egin nahi dugu erkidegoetako lankidetza agintek beren proiektu eta programetan partaidetza eta genero ikuspegia txertatzeko egin dituzten urratsez. Horretarako, esparru juridikoa eta plangintza tresnak aztertuko ditugu, ahultasunak eta indarguneak bereizteko, eta, horietatik abiatuta, TGGa txertatzeko gomendio batzuk emateko, eta, bereziki, partaidetza eta genero prozesuak sendotzeko.

Jarraian, erkidegoetako legeen edukia eta erkidego bakoitzaren lankidetzako azken planak (ikus 1. eranskina) aztertuko ditugu, zehazteko erkidegoetako lankidetza politikek zer arau esparru eta helburu dituzten erabakietan partaidetza politikoa eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko.

#### 3.1. TGGa eta partaidetza, hamazazpi erkidegoen lankidetza politikan

Ohartarazi nahi dugu helburu honetan arreta gehiago eman diegula hegoaldeko komunitateetako garapen

prozesuetan partaidetzari buruz duten ikuspegiari, nahiz eta jabetzen garen ikuspegi konplexu eta alderdi anitzeko honek aintzat hartu beharko litzukeela lankidetzaren beraren egiturak eta hura osatzen duten eragileak ere<sup>50</sup>. Eragile deszentralizatuek lankidetza politika publikoen diseinuan parte hartzeko prozesuen azterketa oso gai esanguratsua da, eta horri buruzko ikerketa egin beharko litzateke aurrerago.

Generoarekin eta haren EG eta GG ikuspegiekin ez bezala, zaila da partaidetzaren ikuspegi espezifikoak zehaztea, ikuspegi horiek nazioarteko garapen lankidetzara hedatzeko moduan. Tradizioz, eragileek askotariko jarrera hartu izan dute garapenean parte hartze-ari dagokionez.

Batzuetan, gonbidapenezko partaidetza edo tutoretzapekoa sustatu izan da, intentsitate handiagoz edo txikiagoz<sup>51</sup>; eta beste batzuetan, berriz, partaidetza prozesuak lagundu dituzte, erkidegoen ekimenez, zeinak

<sup>50</sup> Adibide gisa, erkidegoen lankidetzarako lege guztietan agertzen da atal bat erkidegoko gizarte zibilak lankidetza kontseiluen edo beste egitura batzuen bidez parte hartzeari buruzkoa; partaidetza prozesuekin lotura estua dute alderdi horiek, baina azterlan honetan ez ditugu kontuan hartuko.

<sup>51</sup> Partaidetza funtsean bitarteko gisa hartzen dutenek haren aldeko argudio hau ematen dute: gizarte esparruan, emaitza hobek ematen ditu, antolaketa eredu tradizionalak eta goitik beherakoek baino, hala nola, eredu burokratiko eta paternalistek baino. Hau da, partaidetzak bidea ematen du eraginkortasuna areagotzeko, tokiko herritarren babesa eta baliabideak dituelako; proiektuen kostuak merkatzeak, proiektuen parte bat biztanleria onuradunari transferituz; eta, garrantzi handikoa dena, proiektuen iraunkortasuna areagotzeko, kanpo laguntza jasotzeari uzten diotenean ere, herritarrek proiektuak eta emaitzak bere egingo dituztelako. Tutoretzapeko partaidetza horren intentsitatea kasuaren arabera izaten da: batzuetan, komunitatetik kanpo eta herritarrei galdetu gabe planifikatutako tokiko proiektuak gauzatzen parte hartzen dute tokiko herritarrek; edo, beste muturrean, kontuan hartzen da tokiko herritarren iritzia proiektuak edo programak diseinatzean, baina kanpoko adituek egindako *kontsulta bizkorren* bitartez.

helburu gisa hartu baitute partaidetza, eta erabateko demokraziaren eta giza garapenaren oinarriko baldintza gisa.

Prozesu horiei buruzko eredu analitiko osoagorik ez dago TG-Gari loturik; hortaz, partaidetzaren ikuspegiari buruzko kontzeptuen eta hurbilketen ataletan esandakoa kontuan hartuta, partaidetzaren ikuspegiaren tipologia hirukoitz bat ezarriko dugu, erkidegoen lankidetzen analisirako baliagarria:

Partaidetza eta giza garapeneko ikuspegiak txertatu ez duten erkidegoen lankidetzak, edo *parte hartze*ko garapenaren ikuspegi guztiz despolitizatua dutenak. Halakoetan, komunitatea kanpo eragile baten tutoretzapean egoten da, eta proiektuetan parte hartzeko gonbita egiten dio eragile hark, eraginkortasuna areagotzearen, kostuak murriztearen eta proiektuaren iraunkortasunaren mesedetan. Partaidetzak garapenean duen egitekoa horrela ikusten duten lankidetzak eragileek lehentasuna ematen diete erakunde sendoei eta gobernu onari, ordezkariak demokraziari baino gehiago; eta haiek sustatzen dituzten partaidetza prozesuak nominalak edo instrumentalak, informazio trukera eta herritarren kontsulta soiletara mugatu eta herritar-bezero metodoetan oinarrituak izaten dira.

Gobernantza demokratikoaren bidetara jarraitzen diotenak eta garrantzi handiagoa ematen diotenak erakundeak sendotzeari, partaidetza giza gaitasuntzat hartuta egiten den jardunari baino, edo gobernantza demokratikoaren ikuspegi ez oso politizatua dutenak; partaidetza tutoretzapekoa eta, batzuetan, erreala izan daiteke, baina, betiere, ordezkariak partaidetza inklusiboa, hau da, herritarrei aukera ematen zaie beren ahotsa entzunarazteko, eta baztertutako sektoreei beren eskariak agintariei helarazteko, *statu quo*a kolokan jarri gabe. Mendebaldeko ordezkariak demokrazien teoriak daude ikuspegi honen oinarrian, maila estatala du ardatz, eta ez ditu oso kontuan hartzen testuinguru kulturalen araberrako jardun demokratikoak; sektore publikoaren eta pribatuaren arteko hitzarmena ageri da garapenaren giltzarri gisa, eta herritarren partaidetza molde batzuk onartzen ditu, batik bat talde baztertuenena. Estatuaz azpiko mailetakoa administrazioek eta eragileek beren helburu, ideia eta ekimenak aldarrikatzen dituzte beren lurralde esparruan, tokiko gobernantza demokratikoa deitu izan zaionaren barruan.

Herritarren partaidetza edo/eta partaidetza komunitarioaren ikuspegia txertatzen ahalegintzen direnak, gobernantza demokratikoaz gainera edo harago, edo partaidetza eraldaketara eta harremanetara bideratzen dutenak, giza gaitasunen eta giza garapenaren ideietan oinarrituta. Baztertutako sektoreentzat funtzionamendu politiko eraginkorra aldarrikatzen dute, eliteen pribilegioei aurre egiteko eta baztertutako taldeen eta pribilegiadunen arteko solidaritatea sustatzeko. Gizabanakoa eta kolektiboa ahalduz bilatzen dute; eta emantzipazioarako baliabide gisa ulertzen dute partaidetza -ez xede gisa bere horretan-, sektore baztertuei dagokienez, batik bat. Tokiko jakintza demokratikoak biltzen dituzte, eta herritarrek aginte publikoekin eta beste eragileekin deliberatzean datzan harreman ereduak proposatzen dute auzi publikoen kudeaketarako; erabakiak hartzeko eta kudeaketarako zuzeneko partaidetza ere bai, beharrezko irizten dionean.

Erkidegoetako gobernu guztiak ez datoz bat garapenari buruzko ikuspegiaren, garapenerako nazioarteko agenda berria eta lankidetzak deszentralizatuaren xedean, eta konplikatu samarra da aurreko kategorizazioa lankidetzak politiketara eramatea. Hala ere, begi bistakoa da erkidegoen partaidetza ikuspegia honako hauen arabera zehazten dela: garapenaren, giza eskubideen eta demokraziaren gaineko ikuspegiak, MGHen agendei eta laguntzaren eraginkortasunari buruzko jarrera kritikoa edo akritikoa; eta lankidetzaren zentzua, alegia, estatuaren lankidetzak zentralaren zerbitzuan edo logika propioaren eta eragile deszentralizatuaren zerbitzuan diharduen.

Irizpide horien eta egindako analisiaren arabera, 1. koadroan erakusten den moduan sailka litezke autonomia erkidegoak.

1. Koadroa. Autonomia erkidegoen sailkapena, partaidetzari buruz duten ikuspegiaren arabera		
Partaidetza eta giza garapenaren ikuspegiak ez	Gobernantza demokratikoaren ikuspegia	Herritarren/komunitatearen partaidetzaren ikuspegia
Aragoi*	Andaluzia	Asturias
Kanariak	Kantabria	Balearrak*
Extremadura	Gaztela-Mantxa	Katalunia
Madril	Gaztela eta Leon	Errioxa
Murtzia	Galizia	Nafarroa*
	Valentzia	Euskadi

\*Ñabardura batzuekin

Iturria: lan honetarako berariaz egina.

## A. Partaidetza, demokrazia eta giza garapenaren ikuspeirik ez

Erkidegoetako legeetan eta plan zuzentzaileetan demokraziari eta partaidetzari buruz aipatzen diren printzipio orokor eta objektiboak, lehentasun horizontalak eta sektorialak eta partaidetzaren elementuak edo ikuspegiak erkidegoen lankidetzaren politiketan zer neurritan txertatuta dauden aztertuta, demokrazia eta partaidetza giza garapenaren gaitasunen ikuspegiarekin lotzen ez dituzten autonomia erkidegoen talde bat aipatu behar da lehenik (Kanariak, Extremadura, Madril, Murtzia<sup>52</sup> eta, ñabardura batzuekin, Aragoi).

Nazioarteko organismoek (batik bat GNBPK) eta Espainiaren lankidetzak finkatutako irizpideei jarraituz, erkidegoetako lege eta plan zuzentzaile gehienek dute giza garapena lankidetzaren jardueren printzipio edo helburu orokortzat (Kanariak izan daitezke salbuespena, ez baita gai hori aipatzen Lankidetzaren 4/2009 Legean). Giza garapenaren ikuspegiaren arabera, erabakiak hartzen parte hartzea da gizakiaren gaitasun nagusietako bat. Kanariak, Extremadurak, Madrilek eta Murtziak badituzte gizartea eta erakundeak -batez ere, tokikoak eta eskualdekoak- sendotzearekin zerikusia duten lehentasun horizontal edo sektorialak, baina ez dute bat egiten partaidetzaren eta giza garapenaren ikuspegi horrekin. Gainera, Madrilek eta Extremadurak beren gain hartzen dituzte Espainiaren lankidetzaren gobernagarritasun demokratikoko helburuak, eta, beraz, ez dute ahaleginik egiten garapenaren eta partaidetzaren ikuspegi propio bat eraikitzeko. Murtziari eta Kanariei dagokienez, ez da zehazten neurririk egitura demokratikoak, gizarte zibila eta giza eskubideen defentsa sendotzeko; eta, beraz, ezin esan daiteke giza garapenari loturiko partaidetza eredu garbirik dagoenik.

Aragoiren kasua bestelakoa da; hainbeste, non autonomia erkidegoen hurrengo multzoan sartu bailiteke. Hala ere, formalki, Aragoiren lankidetzaren berezkoz hartzen da giza garapenaren ikuspegia; baina egitura demokratikoen eta gizarte zibilaren sendotzea estuago lotuta dago ekonomia, lan, gizarte eta kultura eskubideak sustatzearekin: laguntzak ematen zaizkie arlo horretako programa espezifikoak eta ahalegina egiten da erkidegoaren babespeko ekimenetan giza eskubideen

defentsa zeharkako ildo gisa txertatzeko. Erabakiak hartzeko partaidetza demokratikoa sustatzea EESKetarako sarbidea errazten duen eskubide gisa hartzen da.

## B. Gobernantza demokratikoa

Tradizioz, lankidetzaren deszentralizatuek azpimarratu dute herritarrekiko hurbiltasunak abantaila ematen duela. Hala ere, 1990eko hamarkadan eta milurteko berriaren hasieran, estatuen garapena, gobernu ona eta demokratizazioa izan dira nazioarteko lankidetzaren agendaren oinarriak; hori dela eta, estatuaz azpiko mailetako guneek eta eragileek protagonismoa galdu dute garapen estrategietan. Hala ere, azkenaldiko autonomia erkidegoen instituzionalizazio gero eta nabarmenagoari esker, estatuaz azpiko mailetako gobernuak lerrokatu egin dituzte tokiko erakundeak eta beren bazkideen erabakitzeko prozesuak hobetzeko ahaleginak eta GNBPK eta garapenaren eta lankidetzaren diskurtso nagusiak sustatutako gobernantza demokratikoaren helburuak (Noferini, 2010:171-172).

Erkidego batzuetako gobernuak ulertu dute beste batzuen aldean abantaila ematen ziela beren erakunde gaitasunak, lidergo politikoak, lurraldeko eragileen mobilizaziorako gaitasunak eta zerbitzu publikoen kudeaketan zuten esperientziak, eta abantaila horien ekarpena egin zezaketela tokiko gobernantza demokratikoko ikuspegi berri horretan.

Andaluziak, Kantabriak, Gaztela-Mantxak, Gaztela eta Leonek, Galiziak eta Valentziak, garapenerako partaidetzaren ikuspegia garatzean, lehentasuna eman diete erakundeei eta gizartearen eta estatuko aginteen arteko harremanari (bereziki, tokiko eta eskualdeko erakundeekikoei). Horrek ez du esan nahi ez dutenik partaidetza sendotu, gaitasun individual nahiz kolektibo gisa, baina erkidego horien politiketan, bigarren mailan gelditu da. Aurreko multzoko erkidegoek ez bezala, erkidego hauek partaidetza demokratikoa, gobernagarritasun demokratikoa eta partaidetza endogenoa aipatzen dituzte giza garapenarekin loturiko printzipio eta helburu orokorren artean.

Autonomia guztiek ez dituzte berdin formulatzen lehentasun horizontalak eta sektorialak (erakundeak,

<sup>52</sup> Aipatzekoa da Murtzia dela autonomia erkidego bakarra urte anitzeko plangintza estrategikorik edo garapenerako lankidetzako plan zuzentzailek ez duena.

administrazioa eta gizartea sendotzea, gobernua eta gizarte zibila, egitura demokratikoak eta herritarren partaidetza sendotzea, tokiko agintea, gobernagarritasun demokratikoa...), baina guztietan aurki daitezke helburu hauekin loturiko elementu komun batzuk: gizarte sendo, demokratiko eta parte-hartzailea eraikitzen saiatzea eta aginte politiko eraginkor eta zilegiak artikulatzea. Gobernantza demokratikoaren ikuspegi hori beren lankidetzaren politikaren ikuspegian zer neurritan txertatzen duten, horretan datza autonomia erkidego horien arteko aldea. Hala, Andaluziak eta Kantabriak neurri eta ekintza zehatz batzuk ezarri dituzte beren plan zuzentzaileetan, erkidegoaren lankidetzaren gobernantza demokratikora bideratzeko, eta gainerakoak (Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leion, Galizia eta Valentzia) hasi dira ikuspegi horri lehentasuna ematen beren ekintzen artean, baita sektore horrekin loturiko proiektu eta programen jarraipen eta ebaluazio adierazle batzuk finkatzen ere.

### C. Eraldaketa ikuspegia

Aurreko taldeko autonomia erkidegoek beren gain hartutako tokiko gobernantza demokratikoaren planteamenduei kontrajarritako jarrera izan gabe, badago autonomia erkidegoen beste talde bat (Asturias, Katalunia, Errioxa eta Euskadi) arreta handiagoa ematen diona, itxuraz, pertsonen eta kolektiboen partaidetzaren helburuari -giza gaitasun gisa hartuta-, eta gutxiago gizarte eta erakunde sendoak lortzeko espazio publikoaren eta pribatuaren arteko loturari. Balearrak eta Nafarroa ere multzo honetan sartzen dira, gobernantza demokratikoaren definizio bati arreta ematen baitiote, nahiz eta beren legetan eta plan zuzentzaileetan argi eta garbi aitortzen duten partaidetzari erreferentzia egiten dion gaitasunen ikuspegiaren aldekoa hautua.

Autonomia erkidego hauek giza garapenaren esparru teorikoan eta gaitasunen ikuspegian oinarritzen dira, baina GNBPK sustatzen duen partaidetzaren eta gobernantza demokratikoaren ikuspegiaren harago, eta, hala, proposamen teoriko eta praktikoko berriak egiten hasi dira, giza garapenaren ikuspegi kritikotik, partai-

detza demokratikoak bere alderdi dialogiko eta eraldatzaileenak berreskuratzeko moduan. Gainera, autonomia erkidego horietako batzuk, batez ere Euskadi eta Katalunia, kritikoak dira pobrezia kontrako borrokaren eta laguntzaren eraginkortasunaren agenda nagusiarekin, eta lankidetzaren deszentralizatuko eredu propioak eratzten dihardute, TGGecko prozesuei laguntzeko.

Partaidetzaren demokratikoaz gainera, giza garapenari eta gaitasunari loturik autonomia erkidego horiek finkatu dituzten lankidetzaren printzipio eta helburu orokor hauek dira aipatzekoak: partaidetzaren inklusioa (Asturias), ahaldundzia (Asturias, Euskadi, Katalunia), gaitasun kolektiboak (Katalunia, Errioxa), eta giza eskubideen eta giza gaitasunen arteko lotura (Katalunia, Euskadi, Nafarroa).

Partaidetzaren eta demokraziaren gaineko helburu horien arabera zehaztutako lehentasun sektorial eta zeharkakoetan eraldaketa borondate nabarmenagoa ikusten da autonomia erkidego hauen lankidetzaren plan estrategikoetan. Lehentasun horizontalei dagokienez, gaitasun kolektibo, lokal eta instituzionalak zeharkako lehentasunak dituzte batzuek (Euskadi, Nafarroa, Errioxa), eta beste batzuek (Asturias, Balearrak, Katalunia) tokiko gobernantza demokratikoari ematen diote lehentasuna, partaidetzaren prozesu sozialak sendotzean arreta berezia jarrita. Lehentasun sektorialeko arloan, askotariko formulazioak dituzte<sup>53</sup>, baina guztietan agertzen dira, modu inplizituan edo esplizituan aipatuta, tokiko gobernantza demokratikoa -gizarte zibilaren partaidetzaren nabarmenduta-, ahaldundzia eta gaitasunak sendotzea.

Aurreko taldean bezala, multzo honetan ere, autonomia erkidego guztien politiketan ez da neurri berean txertatu eraldaketa borondate nabarmenagoa duen partaidetzaren ikuspegi hau. Balearrek, Kataluniak eta Euskadik lehentasunezkoak dute, beren lankidetzaren ekimenak identifikatzeko nahiz ebaluatzeko, eta aurreikusita dituzte horien jarraipen eta ebaluazio adierazle eta tresna zehatz batzuk.

<sup>53</sup> Honela definitzen dute autonomia erkidego batzuek: gobernua eta gizarte zibila (Asturias); gizarte gaitasunak eta gaitasun instituzionalak, herritarren partaidetzaren bidez (Balearrak); gobernantza demokratikoa, eta partaidetzaren inklusioa eta erabaki publikoen gardentasuna, eskubide indibidual eta kolektiboen bermearekin batera eta gizarte sarean eraldaketa gaitasun gehien duten eragileen ahaldundziearekin batera (Katalunia); gobernantza eta garapen zibikoa, gizarte partaidetzaren prozesuak (Errioxa); gobernantza demokratikoa, garapen instituzionala, gizarte zibila sendotzea eta gaitasunak hobetzea (Nafarroa); eta tokiko boterea, edo tokiko administrazio demokratikoaren eta gizarte mugimenduen arteko sinergiak, lurraldearen gaitasunak mugiarazteko estrategiak (Euskadi).



Azken bi autonomia erkidego horietan, ildo sektorialaren ebaluazio adierazle zehatzak finkatu dituzte, eta aurrekontu osoaren barruko gutxieneko gastuaren ehuneko bat zehaztu dute<sup>54</sup>.

Asturiasen eta Nafarroan, ez dute lehentasun sektorial eta zeharkako horien jarraipen eta ebaluazio adierazle eta mekanismo espezifikorik; baina badituzte neurri eta ekimen zehatz batzuk, adibidez, partaidetza lehentsitako arloa izatea programa guztietan, eta autonomia erkidegoak estatuaz azpiko mailako aginteari alde biko lankidetzako programa espezifikoetarako laguntza zehatzak ematea. Errioxan, partaidetzaren ikuspegia planifikazio dokumentuetan bakarrik agertzen da, neurri zehatz edo adierazle espezifikorik gabe.

Ondorio gisa, esan daiteke partaidetzaren ikuspegiari buruzko orientabide komunik ez dagoela autonomia erkidegoetan. Jarraian ikusiko dugunez, maila kontzeptualean, behintzat, autonomia erkidegoetako aginteeek Generoa Garapenean ikuspegia lehentasunezko ikuspegi gisa onartzen dute, oro har, beren lankidetzetan. Beste kontu bat da autonomia erkidego bakoitzak estrategia argi, zehatz eta, batez ere, eraldatzaile izatea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan. Oraingoan, Tokiko Giza Garapeneko prozesuetan partaidetza demokratikoa sustatzeko orientabide komunik ez dago; hortaz, autonomia erkidegoek ez dute konpromiso handirik hartzen esparru honetan aurrera egiteko. Azken batean, bide luzea dago egiteko.

Partaidetza prozesuen eta merkatuaren, gizartearen eta botere publikoen arteko elkarreragin prozesuen ikerketan sakontzen jarraitu beharra dago, garapen prozesuen alderdi politikoago honi buruzko esparru kontzeptuala eta analitiko finkatzeko. Eragile deszentralizatuak, eta, hortaz, baita autonomia erkidegoak ere, ohartu behar dira garrantzi handiko eginkizuna izan dezaketela TGG prozesuetan eta jabekuntza demokratikoko prozesuetan, erlaziozko eta eraldaketa gaitasuneko prozesuak lagunduz eta sendotuz. Eta, horretarako, ahalegina egin behar dute esparru honetarako zeharkako helburuak eta helburu estrategikoak eta tresnak zehartzeko, baita jarraipen eta ebaluazio sistemak ere.

### 3.2. Partaidetza, Euskal Autonomia Erkidegoaren lankidetzan: hitzetatik ekintzetara

Aurreko atal batean, labur-labur deskribatu dugu euskal lankidetzaren bilakaera eta gaur egun dituen erronkak; deskribapen horretan nabarmendu dugunez, euskal lankidetzaren berrantolatzen ari da, 1/2007 Legean aurreikusitako organismoen bidez (Lankidetzarako Euskal Agentzia, Aholkularitza Kontseilua eta Lurralde Arteko Batzordea) eta estatuko eta alderdi anitzeko eragileen arteko lankidetzatik bereizitako lankidetzaren deszentralizatu bat definitzeko ahaleginen bidez.

Azterlan honetan behin eta berriz esaten ari garenez, TGGa eta partaidetza eta genero ikuspegi alternatibo hauek funtsezko elementuak izan daitezke eredu propio hori garatzeko. Euskal lankidetzak, 2007an lankidetzaren legea onartu aurretik ere, tokiko gaitasunak partaidetza eta gizarte organismoak sendotzeak zeharlerro gisa hartu zituen I. Plan Estrategiko eta Zuzentzailean. Ideia horiek goian aipatutako legearen bidez eta II. PZren bidez garatu dira (2008-2011).

1/2007 Legeak nabarmentzen duenez, garapenaren helburuaren osagai nagusiak dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, belaunaldi batetik bestera aukeren iraunkortasuna bermatzea, eta pertsonak sendotzea, garapen prozesuan parte hartu eta hartatik onura ateratzeko. Eta erabakiak hartzeko esparruan aurrera egiteko, ekintzak diseinatu dira ahalduz, berdintasun eza ezabatzeari eta diskriminazioak eta bazterketa ekonomiko, politiko eta sozialak gehien eragiten dieten kolektiboen gaitasunak areagotzeari begira. «Komunitatearen eta herritarren antolaketa eta partaidetza sustatzea» (eta, horrekin batera, pobrezia ezabatzea; giza eskubideak sustatzea; genero ikuspegia eta ingurumena babestea) zeharkako lehentasunak lege horretan, eta lehentasun sektorial gisa ageri dira, berriz, «gizarte zibilaren giza gaitasunak eta gaitasun instituzionalak sendotzea, beharrezkoa baita erabakiak hartzeko partaidetza demokratikoa sustatzeko, sakontzeko eta sendotzeko».

Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzarako II. Plan Estrategiko eta Zuzentzaileak (2008-2011) eutsi egin die

<sup>54</sup> Kataluniari dagokionez, aurrekontuaren %15 bideratu behar da gobernantza demokratikora, giza eskubideetara, partaidetzara eta ahalduz; eta, euskal aurrekontuaren %10 bideratu behar da tokiko boterera (emakumeen ahalduz eta giza eskubideak bi sektore bereizi dira).

1/2007 Legean aipatutako helburu eta lehentasun zeharkako eta sektoriale, eta sakondu egin du giza eskubideen eta giza garapenaren kontzeptuak bereizi ezinezkoak direla dioen partaidetzaren ikuspegi hori. II. PZren helburu nagusia da euskal lankidetzarako eredu espezifikoa, eraldaltzaile, kalitatezko, koordinatu eta koherente bat abian jartzea, egiturazko pobrezia aurre egiteko, estrategia hirukoitz baten bidez: aldaketa subjektuak sendotzea, TGG prozesu alternatiboei laguntzea eta alderdi aniztasun aktibo eta demokratiko berri batera jotzea.

Horren ondorioz, tokiko gaitasunak, partaidetza eta antolaketa euskal lankidetzaren zeharkako lehentasunak dira, eta, hala, plan zuzentzaile horren barruan bideratutako laguntza ekimen guztiek, genero-ekitatea, giza eskubideak eta ingurumen iraunkortasuna zeharkako ildo gisa hartzeaz gainera, aintzat hartu behar dituzte tokiko gaitasunak (subjektu herritarren partaidetza aktiboa eta erabakia), komunitateko kide guztien partaidetza (proiektuaren edo programaren ziklo osoan) eta antolaketa (antolaketa kolektiboaren eta ahalduzko garrantzia).

Emakumeen ahalduzko gaitasunak eta giza eskubideez gainera, tokiko boterea da euskal lankidetzaren ekintza arlo sektorial nagusietako bat: arlo horretan, tokiko esparrua ahalduzko gaitasunaren esparruarekin lotuta, erraztu egiten da garapen prozesuen jabeak eta arlo egokia da partaidetza estrategiak ezartzeko. Estrategia bateratuak ezartzeari begirako tokiko administrazioen eta gizarte zibilaren arteko sinergiaren prozesu gisa ulertzen da<sup>55</sup>. Neurri batean, tokiko boterea ulertzeko modu hori erlaziozko partaidetzaren oinarrituriko tokiko gobernantza demokratikoaren ideari lotuta dago.

Ez dago tokiko boterearen ildo sektorialera bideratu beharreko aurrekontuaren adierazlerik, baina, praktikan, zehaztu da Euskadiko GLOaren parte bat -urteko %10 inguru- honako hauetara bideratuko dela: tokiko erakundeek kudeaketa eta plangintza demokratiko eta soziala hobetzera; lurraldeari eragingo dieten erabakie-

tan eragile guztiek parte hartzeko aukera emango duen tokiko botere bat sortzera; eta lurraldeko gizarte antolakundearen sendotze instituzionalera. Gainera, tokiko botere horri eta gizarte antolakundearen laguntzeko, estrategia horiek genero-ekitatezko irizpideetan oinarrituak behar dute izan, eta emakumeen mendekotasuna eragiten duten egiturak aldatzeko helburuak planteatu behar dituzte.

Ondorio gisa, euskal lankidetzaren hartzen ari den partaidetza ikuspegia gaitasunaren ikuspegiaren eta Tokiko Giza Garapenean oinarritua da, eta, hortaz, erkidegoen ikusmiran aurreratuenetakoa da. Plangintza dokumentuan, etengabe aipatzen dira pertsonak garapen prozesuan parte hartzeko sendotzea, tokiko gaitasunak, tutoretzarik gabeko partaidetza, partaidetza garapenerako baldintza eta helburu gisa hartzea, eta antolamendu kolektiboaren eta ahalduzko indibidualaren arteko oreka, EESKen bereizitasuna, lurraldearen gaitasunak mugiarazteko tokiko administrazioen eta gizarte mugimenduen arteko sinergiak... Eta bat datoz lan honetan zehaztutako esparru kontzeptualeko ideia hauekin: demokraziaren berezko balioa, pertsonen gaitasun politiko eta ekonomikoaren arteko lotura, baztertutako taldeen partaidetzarekiko kezka, politika publikoetarako balio eta printzipio orientatzaile egoki batzuk eraikitzea, eraldaketa partaidetza, erlaziozko partaidetza eta tokiko gobernantza demokratikoa.

Hala ere, partaidetza politikoaren eta tokiko boterearen arauetan eta adierazpenean agertzeak ez du esan nahi partaidetzaren ikuspegi eta estrategiak behar bezala inplementatzen eta ebaluatzen direnik. Egia da: erkidegoaren GLOek finantzatutako euskal eragileek abian jarritako ekimen gehienek eragina dute, nahita edo nahi gabe, antolamendu komunitarioak sendotzean eta garapen prozesuetan parte hartzean. Hala ere, ekimen gehienek ez dute bilatzen epe luzera begirako partaidetza prozesuak sostengatzea; asko jota, partaidetzaren elementu batzuk txertatzen dituzte beren proiektu eta esku-hartzeen zikloetan. Euskal lankidetzaren gainera, ez da bereziki nabarmentzekoa tokiko administrazioak sendotzeko programak eta proiektuak sustatzen dituelako<sup>56</sup>.

<sup>55</sup> Tokiko botereaz gainera, beste arlo sektorial hauek definitu dira: lehentasuneko gizarte premiak, herri ekonomia, emakumeen ahalduzko gaitasunak eta kultura identitatea. Tokiko boterea honela definitzen da: «Tokiko administrazio demokratikoaren eta gizarte mugimenduen artean sinergiak sortzea, lurraldearen gaitasunak mugiaraziko dituen garapen estrategia itundu eta berdintasuneko bat ezartzeko».

Labur esanda, euskal lankidetzak ikuspegi politizatueneko oinarriko erakundeen eta gizarte mugimenduen lana babesten jarraitu behar du, sostengu teknikoak ematen hasi behar zaio gizarte zibilekin garapen prozesuei buruzko elkarriketa egiteko esparruak finkatzea xede duen tokiko administrazioen lanari, eta partaidetza sendotzeko ahaleginak egin beharko dira erakundeen testuinguruak herritarrek eta komunitateak erabakiak hartzeko eta garapen prozesuetako partaidetza mugatzen duten esparruetan.

### 3.3. Genero-ekitatea, hamazazpi erkidegoen lankidetzaren politiketan

Ez da erraza kategoriak zehaztea, baina hamazazpi autonomia erkidegoak hiru multzotan bereiztea proposatzen dugu, arauetan nahiz estrategietan genero-ekitatea nola txertatzen ari diren kontuan hartuta. Analisi honetarako, erkidego bakoitzean indarrean dauden legea eta plangintza estrategikoa hartu dira oinarri, jakinik hurbilketa txiki bat besterik ezingo dugula egin, gai estrategikoa eta konplexu hau sakon aztertzeko denbora gehiago eta erkidego bakoitzari buruzko azterketa xeheagoak beharko bailirateke.

Ez ditugu erabiliko partaidetzaren atalerako erabilitako irizpide berak, gaia bera bestelakoa delako eta, batik bat, gaiaren aplikazioa bestelakoa delako. Atal honetan, ez dugu oinarritu azterketa aplikatutako ikuspegietan (Ongizatea, EG, GG), erkidego guztiek diotelako Generoa Garapenean delako ikuspegia aplikatzen dutela. Erkidego bakoitzaren lanari buruzko sakoneko analisia eginez ez soilik araudiei eta plangintzari dagokienez, baita lankidetzaren eragile bidez horiek nola inplementatzen diren kontuan hartuta ere- egiaztatu ahal izango genuke hori horrela ote den, edo, azterlan askotan planteatzen denez, lankidetzaren praktikan ustez dagoeneko gaudituta dauden ikuspegi askok indarrean dirauten oraindik.

Jarraian, Generoa Garapenean ikuspegia inplementatzeari begira autonomia erkidegoetan egin diren aurre-

rapenak zehazteko irizpide batzuk proposatuko ditugu: definizio politikoa (araudia, adierazpena); generoaren edo/eta emakumeen ahalduz zeharkakotasunarekin loturiko atal edo ildo espezifikoak; genero-ekitatean aurrera egiteko eta aurrerapen jarraipena egiteko tresnak edo/eta adierazleak.

Irizpide horien arabera, honela antola daitezke autonomia erkidegoak:

<b>2. koadroa. Autonomia erkidegoen sailkapena, genero ikuspegiaren inplementazioaren arabera</b>		
<b>Aurrera egiten hasi beharra</b>	<b>Orientabideetatik konpromisoetara</b>	<b>Eraldaketa konpromisoetan aurrera egitea</b>
Aragoi Kanariak Kantabria Extremadura Murtzia Valentzia	Andaluzia Balearrak* Gaztela-Mantxa Gaztela eta Leon Galizia Errioxa Madril	Asturias* Katalunia Nafarroa Euskadi

\* Ñabardura batzuekin.

Iturria: lan honetarako berriaz egin.

Erkidegoetako lankidetzaren legeen eta indarrean dituzten plan zuzentzaileen analisi dokumentuan oinarrituta, lankidetzaren deszentralizatuaren esparruan genero-berdintasunerako egin diren aurrerapauso batzuk aipa daitezke.

Lehenik eta behin, hamazazpi autonomia erkidegoetako lankidetzaren legeetan aitortzen da genero-ekitatea, printzipioetan edo haien garapenean. Gainera, lege gehienak genero-ekitatea ulertzeko zenbait alderdi definitzen dituzte, erreferentzia esparruak deskribatuz, (Pekingo Emakumeen IV. Konferentzia edo CEDAW, besteak beste) edo zeharkako edo/eta sektorekako ildoak garatuz<sup>57</sup>. Oso positiboa iruditzen zaigu hori; izan ere, erkidegoen lankidetzaren legeak dira lankidetzaren arau maila goreneko tresnak, eta lorpen handia da lege guztietan

<sup>56</sup> Ildo horretatik, salbuespenak litzateke Euskal Fuentsak gauzatutako garapenerako tokiko prozesuen eta udal sustapena, batik bat Salvador, Guatemala, Kuba eta SEADera bideratua. Alde batera utzita Eusko Jaurlaritzako sailek Hegoaldeko herrialdeetako aginteekin sinatuta izan dituzketen kanpo ekintzako akordioak, garapenerako lankidetzaren osagaiak txertatuta dituztenak (adibidez, 2005ean Txile, Peru eta Euskadiren artean sinatutako osasun lankidetzarako akordioa), Lankidetzaren Zuzendaritzak nahiago izan du gizarte mugimenduak sendotzeko lankidetzaren ekimenak babestu (adibidez, Emakumeen Mundu Martxarekiko eta Brasilgo Lurrik Gabekoen Mugimenduarekiko -MST- hitzarmenak); eta gutxi dira beste agintari ofizial batzuekiko lankidetzak, nazioarteko organismoekiko hitzarmenak eta herrialde-estrategiak izan ezik (adibidez, Guatemalan, tokiko aginteko programa berezi batzuk).

<sup>57</sup> Batzuetan, ildo sektorialen ordez, ildo sozialak agertzen dira, talde espezifiko batzuk lehenesteari begira, hala nola, emakumeak, haurrak, herri indigenak, etab.

jasota egotea genero-ekitatearen aldeko apustua. Definizio politiko hori aurrerapen handia da bere horretan, eta aukera emango du gainerako lankidetzatresnetan ere genero-ekitatearen printzipioa aplikatu dadin eskatzeko, legearekin bat etorrira.


### A. Aurrera egiten hasi beharra

Atal honen hasieran esan dugunez, aurrerapen handia da lege guztiek aintzat hartzea berdintasun printzipioa. Gainera, Aragoi, Kanariar Uharteak, Kantabria, Valentzia, Extremadura eta Murtzia erkidegoek, genero-berdintasuna printzipio gisa hartzeaz gainera, printzipio horren aplikazioa definitzen dute, bai zeharkakotasunaren bidez bai ildo edo sektore espezifikoak ezarrita. Helburu horiek zeharkakotasunaren bidez edo/eta sektoreka zehazteak nabarmendu egiten du genero-ekitate autonomia erkidego horien lankidetzat legeetan. Baina beharrezkoa da zehaztaper horiek gauzatea, araudia garatzean eta plangintza estrategikoak lantzean.

Hain zuzen ere, autonomia erkidego horien plangintza estrategikoetan sumatzen dira gabezia nabarmenenak. Urte antzeko plangintza horiek dira tresna nagusiak genero-ekitatearen edukiak, prozedurak, eragileak, aurrekontuak, jarraipena eta ebaluazioa zehazteko eta garatzeko.

Aragoiko, Kanariar Uharteetako, Kantabriako, Valentziako eta Extremadurako plan zuzentzaileetan planteatutako estrategia genero-ekitatea zeharkako lehentasun modura txertatzea da, eta ez da espezifikoiki aurreikusten ildo sektorialik berdintasunari, emakumeen ahalduntzeari eta gisa horretakoei dagokienez<sup>58</sup>. Beste atal batean adierazi dugunez, zeharkakotasun estrategiak eta estrategia espezifikoak adibidez, emakumeen ahalduntzea, funtsezkoa da gaur egungo berdintasunik eza deuseztatzeke aukera emango duten erlazio berriak eraikitzeke.

Ildo horretatik, arlo sektorial espezifikoak definitzeak -zein bere helburu eta baliabide propioekin- erraztu egiten du emakumeen ahalduntze estrategiaren garapena. Zeharlerroak giltzarriak dira, eta politika publikoen fase guztietan aplikatu behar dira; beraz, baita lankidetzat politiketan ere. Hala ere, askotan, generoaren zeharkakotasun hori adierazpenen atalera mugatuta gelditzen da<sup>59</sup> eta lehentasun sektorialak dira benetan agerian gelditzen direnak, eta horietan zehazten dira genero-ekitatea eta emakumeen ahalduntzea.



Iturria: lan honetarako berriaz egina.

2. grafikoak erakusten du estrategia horiek nola aplikatzen diren plan zuzentzaileak dituzten hamasei autonomia erkidegoetan<sup>60</sup>; plan horietan, zortzi autonomia erkidegotan egin dute ahalduntzean zeharkakotasuna eta ildo sektorial bat edo gisa horretakoren bat uztartzearen aldeko apustua (Andaluzia, Asturias, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon, Katalunia, Galizia, Madril, Euskadi), eta beste zortziek (Aragoi, Balearrak, Kanariak, Kantabria, Valentzia, Extremadura, Errioxa eta Nafarroa) zeharkako ildo gisa heldu diote genero-ekitateari.

Ildo beretik, lehen multzo honetan sailkatutako sei autonomia erkidegoek, beren plangintzetan genero-ekitateari buruzko jarrera zehaztean, erreferentzia egiten diete MGHei (Aragoi eta Valentzia), edo berriaz GG ikuspegiari (Kanariak, Kantabria eta Extremadura), baina ez dute beren gain hartzen adierazpen edo ikuspegi horiek

<sup>58</sup> Kanariar Uharteak dira salbuespena, hein batean; izan ere, emakumeentzako aukera berdintasuna arlo sektorial modura agertzen da, nahiz eta beste talde baztertu eta beste kategoria tematiko batzuekin uztartuta egon (haurrak, herritartasuna sendotzeko prozesuak...). Aragoiko Legean, berriz, genero-ekitatea ildo sektorial modura ageri da, baina plan zuzentzailean ezarritako lehentasunen arabera, desagertu egiten da.

<sup>59</sup> Lan eremu batzuetan, adibidez, laguntzaren eraginkortasunean, zeharkako gaien ordez garapen politiken lehentasuneko gai edo helburu nagusiak erabiltzea proposatzen ari dira, zeharkakotasunaren ondorioz garapenerako ezinbestekoak diren ildo horiek alde batera uzten ari direlako (Alemany, 2008:10).

<sup>60</sup> Lehen esan bezala, Murtziak ez du plan zuzentzailearik, baina lankidetzat legean genero-ekitatearen eta aukera berdintasunaren zeharkako ildo bat eta ildo sektorial bat agertzen dira.



proposatzen duten zeharkakotasunaren eta emakumeen ahalduntzearen konbinazioa.

Genero-egitatearen zeharkako ildoaren jarraipen eta ebaluazio adierazleen definizioari dagokienez, multzo honetako autonomia erkidegoek ez dute adierazle argi eta objektiboki egiaztagarriak apustu politikoak neurrietan zehazten laguntzeko, eta gardentasuna eta hartutako konpromisoen jarraipena sustatzeko<sup>61</sup>.

## B. Orientabideetatik konpromisoetara

Multzo honetan sartutako zazpi autonomia erkidegoetan (Andaluzia, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon, Errioxa, Madril eta Balearrak) izan da aurrerapenik generoaren eta garapenaren esparruetan, baina asko dago hobetzeko. Aurrerapausoak egin dira genero-egitate/berdintasuna printzipio eta estrategia gisa definitzeko fasean, eta hasi dira erkidegoaren lankidetzaren ekimenak orientatzeko neurri batzuk ezartzen; batzuetan, baita konpromisoak neurtzen ere.

Multzo honetan nabarmentzeko alderdi positiboak dira erkidego gehienek konbinatzea zeharkakotasunaren estrategia eta emakumeen ahalduntzeko edo gisa horretako sektorial espezifikoa bat<sup>62</sup>, berdintasunaren aurrerapenean lorpen argiagoak bideratuko dituelakotan, lehen esan bezala. Nolanahi ere, interesgarria litzateke edukiei buruzko eztabaida egitea, plan zuzentzaile batzuetan nahastu egiten baitira neurri sektorialak eta zeharkakoak, eta alderantziz, edo/eta auziaren alderdi partzialak bakarrik kontuan hartzen baitira<sup>63</sup>.

Aintzat hartu behar dira, halaber, erkidegoen plangintzetan generoaren zeharkakotasunak eta emakumeen ahalduntzearen sektorializazioak dituzten esanahiak eta edukiak. Zehaztu beharko litzateke finkatutako

lehentasunak bat ote datozen emakumeen interes estrategikoekin eta kontuan hartzen dituzten genero berdintasunik ezaren arrazoiak eta horien balizko erreproduktzioa. Izan ere, agentzia eta beste lankidetzaren eragile askok lotu dute diskurtsoa GG ikuspegiarekin, baina hura zehaztean eta praktikara eramatean, EG ikuspegira *lerratzen* dira, batik bat arrazoi instrumentalak edo/eta eraginkortasuna direla eta (Reeves, 2000:326).

Ildo horretatik, multzo honetako autonomia erkidegoen plangintzetan genero berdintasunik ezaren kontrako eta emakumeen ahalduntzerako ekintza estrategiko batzuk biltzen dira: indarkeria matxistaren kontrako borroka; emakumeen eskubideak bermatzeko egitura publikoak sortzea (Andaluzia); espazio publiko eta sozial guztietan partaidetza parekidea sustatzea (Gaztela-Mantxa)... Nolanahi ere, egia da emakumeak beste rol tradizional batzuekin lotzen dituzten eduki batzuk ere agertzen direla (senitartekoen zaintzarekin, adibidez). Adibide modura, Madrileko emakumeen eskubideei eta aukera berdintasunari buruzko arlo sektorial estrategikoan helburu hau aipatzen da, besteak beste: «jarduera osasungarriak hartzea eta familiarren higiena hobetzea», eta gehiago dirudi oinarritzko premien edo/eta osasunaren arlo sektorialaren helburua. Era berean, Gaztela-Mantxan mikrokredituak sartu dira generoko arlo sektorialean, argi eduki ez arren mikrokreditu horiek emakumeen garapenari zer onura dakarkioten.

Autonomia erkidego horiek guztiek orientabideak edo/eta adierazleak zehaztu dituzte, genero ikuspegia nola inplementatu beharko litzatekeen jasotzen dutenak, bai garapen prozesuetarako lehentasunezko ekintza modura (herrialdeetan genero berdintasunerako egitura nazionalak sendotzea, emakumeen kontrako

<sup>61</sup> Adibide gisa, Valentziak lankidetzaren entitateak sendotzeko jarduerak gisa aipatzen du GGKEen gaitasunak sendotzea, formazio programa eta ekintzen bidez (kudeaketa estrategikoa, genero politikak atxikitzea, gizarte erantzukizun korporatiboa sustatzea, ebaluazioa...). Eta adierazle gisa finkatu du plan zuzentzailean deskribatutako formazio programa eta ekintza horiek gauzatuta egotea. Hala ere, adierazle zehaztugabea izanik, planak biltzen dituen urteetan lortu nahi den helburua argi zehaztuta ez dagoenez, eta genero politiketarako beste adierazle espezifikorik ez duenez, argi esan daiteke Valentziako erkidegoaren lankidetzaren ekimenetan genero-egitatea guztiz lausotuta gelditzen dela plan zuzentzailearen eskakizun modura.

<sup>62</sup> Galizian, arlo sektorialaren ordean, helburu espezifikoa bat zehaztu dute, «emakumeen ahalduntzea sustatzeko eta Generoaren Garapenean ikuspegia ekintza proposamen guztietan txertatzeko». Balearrei dagokienez, lehentasun estrategikoa gisa definitu da garapenean, eta Errioxan ez da ageri arlo sektorial gisa edo antzeko gisa.

<sup>63</sup> Emakumeen ahalduntzearen ildo sektorialean agertzen diren eta zeharkakoan landu beharko liratekeen ekintzen adibideak dira: administrazio publikoetan genero ikuspegi integratua txertatzea (Andaluzia); emakumeen eta gizonen formaziorako eta sentsibilizaziorako jarduerak, genero erlazioetan jarrerak aldatzeko begira (Gaztela-Mantxa); genero ikuspegia eraginkortasunez txertatzea garapenerako lankidetzarekin loturiko jardueretan (Gaztela eta Leon).

biolentziaren prebentzioa eta hura deuseztatzea, emakumeen partaidetza politikoa...), baita erkidegoen lankidetzan zeharkakotasuna sustatzeko mekanismo modura ere (datu desagregatuak, aurretiko diagnostikoak, genero ikuspegia proiektuen osagai estrategiko gisa txertatzen laguntzea, egiaztapen zerrendak prestatzea...). Hala ere, amaitu gabeko edo oker definitutako adierazleak dira gehienak<sup>64</sup>.

Multzo honetako erkidegoek orientabidea konpromiso neurgarri bihurtzeko premia dute. Izan ere, gaur egungo definizioarekin, gomendio hutsak dira, eta ezin dira objektiboki egiaztatu. Gainera, gehienetan, generoa lankidetzaren politikan txertatzeko urratsen jarraipen eta eboluziorako adierazleak izan ordez, GGKEei eta erkidegoko GLOa exekutatzeko duten beste lankidetzaren eragile batzuei emandako orientabide generikoak eta apur bat lausoak besterik ez dira.

### C. Eraldaketa konpromisoetan aurrera egitea

Multzo honetako erkidego guztiek (Katalunia, Nafarroa, Euskadi, eta Asturias, ñabardura batzuekin) badute ezaugarri aipagarri bat, beren legeetan eta plan zuzentzailetan genero berdintasuna ezartzearen aldeko apustu politiko argiaz gainera: konpromiso zehatzak eta denboran neurtzeko modukoak definitzeko ahalegina, eta, horrek bultzatuta, neurri argiak ezarri beharra eta horien jarraipena eta ikuskaritza edo kontrola gauzatzeko premia.

Guztiak adierazi dute generoari buruzko plangintza edo/eta ebaluazio tresna espezifikoak lantzeko premia (genero ekintzen estrategia edo/eta plana, generoaren eraginaren ebaluazioak...). Lorpen handia da hori, eta aukera bikaina, gogoetan, formazioan eta jarreretan sakontzen jarraitzeko; baina funtsezkoa da hari jarraipena ematea, batzuetan ematen baitu dokumentu estrategikoak definitzea emaitza bihurtzen dela bere horretan, edo neurri zehatz eta neurgarrien zehaztapena atzeratzeko aitzakia.

Gainera, genero ikuspegia lankidetzaren kudeaketan txertatzeko proposamena egiten ari dira (tresnak,

herrialdeen genero diagnostikoak, aurrerapenak balioes- teko informazioa biltzea...). Alderdi horri dagokionez, azpimarratzekoa da bazterketaren irizpidea definitu dela genero ikuspegia txertatuta ez duten lankidetzaren ekimen- tarako -Euskadin, adibidez-, eta genero politikak edu- kitzea ezinbesteko baldintza dela diru laguntza jakin batzuk eskuratzeko.

Aipatzekoa da, halaber, Kataluniak, Nafarroak eta Euskadik genero ikuspegiaren instituzionalizazioa sustatzen dutela eragile instituzional batzuetan edo/ eta genero politika propioak lantzean. Oro har, aipa- tu besterik ez dute egiten, ordea, eta ez da oso argi ikusten zein diren apustu espezifikoak. Euskadi sal- buespena da, politika propioa lantzearen alde egin baitu eta beste lankidetzaren eragile batzuetan ekimen horiei sostengua emateko tresna espezifiko bat sortzea onartu baitu. Elementu bereziki adierazgarria da hori eraldaketa prozesuak eta barne koherentzia dutenak definitzeko.

Asturias, Katalunia eta Euskadi nabarmentzen dira, emakumeen ahalduzuean interes estrategikoekin erlazioatutako ekintzak lehenesten dituzten aldetik, hala nola, sexu eta ugalketa eskubideekin, partaidetza politikoarekin, indarkeria matxistarekin eta autono- mia ekonomikoarekin lotuak. Autonomia erkidego horiek, gainera, mugimendu feminista agerrarazten dute beren estrategietan eta plan zuzentzailetan, eta, ezohikoagoa bada ere, aliantza planteatzen dute mugimendu horrekin, baita hitzarmenen bidezko zuzeneko laguntza ere. Nafarroan, Emakumearen Institutu- arekiko aliantza planteatzen dute. Aintzat hartzeko alderdi positiboak dira, halaber, genero ikuspegia garapen hezkuntzan txertatzea eta horrek Iparraldeko gizarteetan duen eragina; arlo honetako jardunbide egokien ikerketa eta formazioa; eta genero-ekitatearen aldeko sare edo foroetan parte hartzea.

Multzo honetako autonomia erkidego guztiek, Asturiasek izan ezik, konpromisoak hartu dituzte aurrekontuetan (genero-ekitatearako eta emakumeen ahalduzuearako %10, Euskadik; %15, Kataluniak;

<sup>64</sup> Andaluzian, zeharkakotasuna aplikatzeko adierazle batzuk zehaztu dira, baina ez da berariaz azaltzen horiek nola gauzatu diren. Beste era batera esanda, amaitu gabeko edo gaizki definitutako adierazleak dira, ez baitute jarraipenerako eta ebaluaziorako sistemarik. Balearrei dagokionez, urteko plangintzetan ehuneko espezifikoagoak esleitzeko aurreikuspena egin dute. Plan horiek ikertzea baliagarria izan daiteke apustuen eta haiei loturiko adierazlearen definizioa egiaztatzeko. Edonola ere, aztertu egin beharko litzateke adierazle horiek zergatik ez diren definitzen plan zuzentzailean, urte anitzeko plangintza horiek zilegitasun eta kontsulta handiagoa baitute Balearretako administra- zioan eta erkidegoen lankidetzaren eragilearen artean.

eta %20, Nafarroak). Hori da funtsezko alderdieta-ko bat; izan ere, apustu handiak egin arren aurrekontuetan konpromisorik hartzen ez bada, nekez gauzatu ahal izango dira apustu horiek. Adierazle horien definizio eta jarraipen egokia nola egin erabaki beharko litzateke, kasuren batean ez baita argi ikusten zeharkakotasunerako edo ildo sektorialerako ote den aurrekontuetan finkatutako ehunekoak. Aurrekontuez gainera, bestelako baliabide eta tresna batzuk behar dira genero ikuspegia implementatzeko, hala nola, langile espezifikoak izatea erkidegoko lankidetzarako administrazio unitateetan (Nafarroa) eta genero-ekitatearen aldeko deialdi espezifikoak (Euskadi).

Autonomia erkidego hauen eta gainerakoen erronka da konpromisoak ez izatea ekintza sinboliko soilak, eta estrategia argi, zehatz eta eraldatzaile bat atxikita edukitzea, konpromiso mailakatuak eta denboran neurgarriak barne. Eraldaketarako neurriak ezarri eta autonomia erkidego hauen helburuak betetzeko, ezinbestekoa da estrategiak informazioa sistematizatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluazio tresna egokietan zehaztea. Funtsezkoak dira, halaber, gardentasuna bermatzeko eta kontuak emateko.

Autonomia erkidegoen lankidetzaren ekintzetan genero-ekitatea sustatzeko ardura duten organizazioek berek aitortu dutenez, ahultasun nagusi hauek dituzte esparru honetan: ebaluaziorik eta jarraipenik eza, genero politikak proiektuetan eta programetan txertatzeko zailtasunak, generoak proiektuetan eragin gutxi izatea, aurrekonturik ez esleitzea, genero langilerik eta egitura espezifikorik eza, erkidegoetako lankidetzaren agentzia eta departamentuetan generoa ez instituzionalizatzea, Hegoaldeko gizarte organizazioetan eta aginteetan genero ikuspegia txertatzeko erresistentzia, EG ikuspegiak GG ikuspegiak baino pisu handiagoa izatea, mugimendu feministarekiko aliantzarik eza eta tresna berrien premia.

Hasieran planteatu dugunez, autonomia erkidego hauek erabakimenez egiten dituzte apustu politikoak genero-ekitateari dagokionez, baina ez dira behar bezala zehazten. Begi bistakoa da genero-ekitatea lortzeko eta emakumeen eskubideak benetan betetzeko

prozesuak luzeak direla; baina estrategia argiak ezarri beharko dira, oinarritzko ildo egokiak eta epe labur, ertain eta luzera begirako eraginaren adierazleak finkatuta, eta, batik bat, estrategia aurrerapausoen eta atzerapausoen eta arabera egokitzeko aukerarekin.

#### 3.4. Genero ikuspegia, euskal lankidetzan<sup>65</sup>

Euskadiko Garapen Lankidetzaren 1/2007 Legearen zioen azalpenean, zuzenean aipatzen da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egiteko premia, giza garapenerako funtsezko elementua den heinean; eta giza eskubideen arloko auzi gisa hartzen da haren aplikazioa. Era berean, indarrean dauden legediak ez aplikatzeari kritika egiten zaio, esanez badela berdintasuna de *iure*, baina ez de *facto*; eta berriaz aipatzen da genero ikuspegia lankidetzaren ekimen guztietan txertatzeko premia. Beste erkidego batzuetako legeen zioen azalpenarekin alderatuta, genero-berdintasunaren deskribapena eta haren aldeko apustua zabalagoak dira Euskadikoan.

Genero-ekitatea edo/eta emakumeen ahalduntzea legearen garapenean aipatzen dira: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, printzipio orientatzaile gisa; emakumeen berdintasuna eta ahalduntzea, lehentasun sektorial gisa; emakumeak, talde estrukturaliki behartsu gisa; eta genero ikuspegia, zeharkako balio gisa.

Lankidetzaren funtsak arautzeko Eusko Jaurlaritzaren lehen arauan (223/1989 Dekretua), ez zen aipatu ere egiten ez genero-ekitatea ez harekin loturiko beste ezein termino; baina, harrezkero, aurrerapauso handiak egin dira bide horretan. 1/2007 Legeak dioenari jarraituz, euskal erakundeak eta euskal eragileak genero-ekitatearen aldeko borrokan inplikatu dira, eskubideen ikuspegitik, arlo horretan indarrean dauden nazioarteko konpromisoen aldeko apustua eginez.

Autonomia erkidegoen analisian planteatu dugun moduan, apustu horrek isla eduki behar du xede estrategikoetan. Genero ikuspegia Garapenerako 2008-2011 Plan Zuzentzailean txertatzeari buruzko zenbait ideia aipatuko ditugu.

Aurrerapenen artean, aipagarria da, I. PZn bezala, GG ikuspegiari eutsi zaiola, ikuspegi feministatik, gai-

<sup>65</sup> Atal honi buruzko azterketa xeheagoa egiteko, María Viaderok 2010ean egindako honako ikerlan hau kontsulta daiteke: *La incorporación de los derechos de las mujeres y la equidad de género en los procesos de desarrollo y cooperación: El caso del Gobierno Vasco*.

nera. Testuingurua zehaztean eta estrategiak finkatzean, genero erlazioen egiturazko analisia gauzatu da, eta eredu patriarkalaren salaketa egin da. Era berean, kritika egiten zaio garapenaren eta laguntzaren eraginkortasunaren nazioarteko agendan genero berdintasuna modu okerrean txertatzeari.

Zeharkakotasunaren strategiari gehitu behar zaio emakumeen ahalduntzerako ildo sektorial espezifiko bat, «genero-ekitatearen aldeko borrokaren parte ezinbesteko» gisa definitua. Gainera, sexu eta ugalketa osasunari, lana ordaintzeari eta ez ordaintzeari eta indarkeria matxistari buruzko aipamenak biltzen ditu. Zeharkakotasuna modu egokian jasota dago plan zuzentzailean, eta atal gehienetan agertzen dira genero berdintasunik eza arintzeko diagnostikoa, estrategiak edo/eta neurri espezifikoak<sup>66</sup>.

I. PZn bezala, emakumeen mugimendua eta mugimendu feminista agertzen dira II. PZ honetan ere, eta honek azpimarratu egiten du lankidetzaren eragileentzat zer-nolako garrantzi estrategikoa duten Iparraldeko eta Hegoaldeko emakume erakundeen eta erakunde feministen arteko loturek eta aliantzek; hain zuzen ere, hitzarmenak finkatzen ditu genero berdintasunaren eta emakumeen ahalduntzearen alde diharduten alderdi anitzeko eragile eta organismo horiekin, hala nola, UNIFEMekin.

Konpromiso argi eta zehatzak biltzen dituzte, genero-ekitatearen alde: bazterketa irizpideari eutsi zaio, garapen prozesuetan genero-ekitatea txertatzen ez duten proposamenei dagokienez; generoa aintzat hartzen da, eta baldintza gisa jartzen dute lankidetzaren protagonista diren erakundeak instituzionalizatzeko, Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzaren Zuzendaritza barne; eta ikuspegi horren instituzionalizazio prozesuei sostengua emateko tresna bat sortzea proposatzen da (antolakundeetan genero-ekitatearen aldeko aldatetari laguntza emateko).

Zailtasun edo gabezia nagusietako bat da hartutako konpromisoak ez direla diskurtsoak ematen duen neurrikoak. Egia da genero-berdintasunaren eta emakumeen ahalduntzearen aldeko prozesuak konplexuak direla,

eta epe luzera begira gauzatzekoak; baina plan zuzentzailean finkatutako zeharkako helburuak eta helburu sektorialak zehaztugabeak dira, ez dagoelako behar adinako informazio sistematizaturik eta adierazle argirik. Beste era batera esanda, ez dago zailtasunen jarraipena egiteko eta hobekuntzak ezartzeko oinarriko ildo zehatzek eta konpromiso neurgarriek osatutako estrategia zehatzik<sup>67</sup>. Elementu horiek txertatzeak gardentasuna areagotzen eta kontuak ematen lagunduko luke.

II. PZk eutsi egin dio I. PZk genero-ekitatearako ezarri zuten aurrekontuaren ehunekoari (%10). Igoerarik ez dagoenez, esleitutako zenbatekoa ez dator bat generoari buruzko ildo estrategikoa sendotzeko konpromisoarekin, 2002-2007 bitartean batez beste %12ko gastua izan baitzen emakumeen ahalduntzerako (EJ, 2008). Genero-ekitatearako aurrekontuaren atal hori aurrekoa bezain lausoa da, gainera; ez baitira zehaztu ehunekoaren osagaiak (tresnak, edukiak, ehuneko zehatza...), ezta mugimendu feministarekin eta nazioarteko erakundeekin (hala nola, UNIFEMekin) egingo diren hitzarmenen kopurua edo haietara bideratuko diren zenbatekoak ere.

Aitortu arren euskal lankidetzaren erkidegoen lankidetzarik aurreratuenetakoa dela edukiei dagokienez, aintzat hartu behar dugu emakumeak xede talde gisa agertzen direla, batzuetan, eta ez beren garapenaren protagonistak gisa; gainera, batzuetan, ez dira behar bezain argi aipatzen emakumeekin bideratzeko ekimenak, eta, horren ondorioz, praktikan, EG ikuspegia ematen zaie, GG ikuspegiaren ordez.

Genero ikuspegia instituzionalizatzeko prozesuei dagokienez, II. PZk Garapen Lankidetzaren Euskal Agentziaren berdintasunaren aldeko plan bat aipatzen du. Agentzia hori ez denez ari indar betean lanean, ez da plana ere abian jarri.

Orain arte esandakoak esanda, balioespen positiboa egiten dugu PZ honek genero ikuspegiaren zeharkakotasunaren alde egindako ahaleginaz. Ahalegin horren erakusgarri dira ekimen horren barruan hartutako konpromiso zehatzak (ahalduntze estrategia sektoriala txer-

<sup>66</sup> Generoaren zeharkakotasuna ekintza humanitarioan eta garapenerako hezkuntzan ere agertzen da. Aldiz, estrategia sektoriala ez da bere horretan agertzen ekintza humanitarioan; baina aipatzen du emakumeekin lan espezifikoaren egitearen garrantzia.

<sup>67</sup> Estrategia honi dagokienez, egokia da euskal lankidetzak genero berdintasunik eza arintzean izandako eragina aztertzeko analisian egitea. Ekintza zehatz batzuk gauzatu dira, baina adierazleak behar dira zeharkakotasunaren eta ahalduntzearen aurrerapena edo atzerapena neurtzeko. Ildo horretatik, genero-ekitateari esleitutako aurrekontuko gastuari dagokionak beste adierazlerik ez dago.

tatzea eta pixkanaka zehaztea, aurrekontuaren gutxieneko ehuneko bat finkatzea), baita eraldatzailatzat har litezkeen konpromiso batzuk ere (genero politika instituzionalen aldeko apustua, mugimendu feministari zuzeneko sostengua...).

Autonomia Erkidegoen analisi orokorrean esan bezala, Euskadiren kasuan, aurrerapen jakingarriak egin dira; baina arlo sinbolikotik harago doazen ekintzetan adierazpenezko esparruek egiten duten apustu politikoa zehaztu beharra dago, eta, horretarako, ezinbestekoa da ekintza horiek estrategia argien arabera finkatzea, epe labur, ertain eta luzera begirako konpromiso atxikiak barne.





## 4. Ondorioak, eta partaidetza eta GG ikuspegia erkidegoen lankidetzetan txertatzen jarraitzeko iradokizunak

Atal honetan, multzokatuta adieraziko ditugu partaidetza eta genero ikuspegiaren analisisen ondorio nagusiak; era berean, iradokizun batzuk egingo ditugu, ikuspegi horietan sakontzen jarraitzeko, eta, horrela, garapen eraldatzaileagoa sustatzeko.

### 4.1. Partaidetza eta generoa, autonomia erkidegoen legeetan eta plan zuzentzaileetan

*Aurrerapenak badira, baina lausotu egiten dira...*

Hamazazpi autonomia erkidegoen legeetan eta plan zuzentzaileetan partaidetzaren eta generoaren ikuspegia zer egoeratan dagoen aztertu ondoren, esparru horretan gertatutako aurrerapenak nabarmendu nahi ditugu, lehenik eta behin. Autonomien lankidetzen instituzionalizazio eta plangintza gero eta sendoagoei esker, bi ikuspegi horiek txertatu dituzte lankidetzaren politiketan, helburu gisa eta zeharkako ildo edo/eta ildo sektorial gisa.

GG ikuspegiari lehenetsia aitortzen diote, oro har, autonomia erkidegoek. Aurrerapenen artean, aipatzen da erkidegoen lankidetzaren lege eta PZetan genero ikuspegia txertatzea zeharkako ildo gisa, eta, batzuetan, emakumeen ahalduzko lehenetsia sektorial gisa ageri da, ekintza eta adierazle espezifiko eta guzti. Partaidetzari, demokraziari eta garapenari dagokienez, dokumentu horiek ez dute orientabide kontzeptual

komunikatu, eta, hala, esparru horretan hartzen diren konpromisoak oso lausoak dira oraindik; hala, nekez esan liteke ikuspegia direnik ere. Azken batean, autonomia erkidegoen lankidetzaren estrategietan, partaidetzari eta genero-ekitateari dagokienez, aurrerapenak egin dira adierazpenaren edo/eta teoriaren esparruan, baina ez dira behar bezain argiak edo ez daude behar bezain zehaztuta, eta, batez ere, ez dira oso eraldatzaileak.

Bi ikuspegietatik aztertutako politiken lehen ezaugarri komuna lausotasuna da. Zentzu bikoitzeko lausotasuna. Alegia, plan zuzentzaileetan zehaztutako apustu politikoak ezerezean gelditzen dira, helburuak, emaitzak, ekintzak eta, bereziki jarraipen eta ebaluazio sistema zehaztu ahala. Eta, bestalde, plangintza estrategikoen apustu zehatz horiek ez dira gauzatzen lankidetzaren proiektu eta ekimenetan.

Partaidetza eta genero ikuspegiari dagokienez, oro har, autonomia erkidego ia guztietako gobernuak diote ikuspegi horiek ebaluatzen asmoa dutela; baina ia inon ez dute zehaztu horretarako adierazle eraginkorrik. Hala, esan daiteke gobernantza, partaidetza eta generoa zeharkako lehenetsia izateko ikuspegiak hartzen direla erkidego guztien lankidetzaren, baina, aldiz, jarraipen eta ebaluazio adierazlerik eta mekanismorik ez dago ia. Gai horiekin loturiko arlo sektorialen azterketan ikusi dugunez, ez da eragina neurtzeko adierazlerik jaso, aurrekontuetako konpromisoei dagokienak izan ezik.

GGKEek nahiz erkidegoetako aginteeek berek bideratutako ekintza zehatzetan ikuspegi horiek zeharkako eta sektorial gisa hartzeari dagokionez, ez da aurrerapen handirik izan. Proiektuak batera finantzatzeko eskabideetan, izaten dira atal batzuk genero-ekitatea formalizatzeko, eta, oso gutxitan, partaidetza formalizatzeko. Hau da, kontuan hartzen dira, baina ekimenen identifikazio fasean, soilik; ez jarraipena eta ebaluazioa egiteko garaian. Gainera, partaidetza ikuspegiaren lausotasuna bestelakoa da; izan ere, esan dugunez, kontzeptualizazioan egin beharreko urratsak ere egin gabe daude oraindik. Dirudienez, GNBPK gobernagarritasun demokratiakoari eta partaidetza inklusiboari buruz dituen ideiak gero eta zabalduago daude PZetan eta erkidegoen lankidetzaren estrategietan, baina oraindik ez daude behar bezala zehaztuta helburu eta adierazle neurgarritan.

Arlo teorikoan nahiz praktikoan ikusten dugun lausotasun horrek zailtasunak dakarzkie eragile guztiei, baina batik bat garapen agentziei. 1990eko hamarkadan egindako zenbait ikerlanek diskurtsoaren oparotasuna eta praktikaren ahultasuna nabarmendu dute<sup>68</sup>. Okerrena da azken urteetan ez dela aurrerapen handirik egin, eta ondorio bertsuak atera dituztela berriki egindako lanetan.

Esan bezala, hamazazpi erkidegoen politiketan sumatzen da sentiberatasuna, gehiago edo gutxiago, partaidetzari eta genero-ekitateari buruz; aldiz, arlo horietarako ekintzak neutroak proposatzen dituzte, ez diote bide ematen komunitateak eta emakumeak erabakiak hartzeko prozesuetan ahalduzterari, eta ez dira laguntza bereziki aipagarria emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari begira. Autonomia erkidego batzuek gaitasuna izan dute genero eta partaidetza proposamen eraldatzaileak eta generoko birbanaketa politikak lantzeko; baina oraindik asko dago egiteko, beren ekintzek benetako eraldaketa ondorioak izango badituzte. Ildo horretatik, ohar hauek dira aipatzekoak:

- I. Adierazpenen mailan gero eta jarrera landuagoa eta aurrerazalegoa eduki arren, praktikan dituzten partaidetza eta genero ereduak dagoeneko gaitutako ereduetatik hurbilago daude.
- II. Nahasmen teorikoa dago genero eta partaidetza ikuspegiaren zeharkakotasunari eta sektorializazioari dagokienez; baita helburuen definizioari eta emaitzak eta adierazleak zehazteari dagokionez ere<sup>69</sup>.
- III. Partaidetza eta genero ikuspegiak MGHen logikan eta laguntzaren eraginkortasunean txertatzen ari dira, eta, horren ondorioz, alde batera uzten ari da lankidetzaren eduki politikoa eta eraldatzaileena. Zehazki, agenda nagusi berria ez da bereziki sentibera emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik ezaren arrazoiekiko, berdintasun ekonomikorik ezarekiko eta horrek eragiten duen partaidetza politikoa urriarekiko. Aurrerago jardungo dugu horretaz.

